

# GUaiXE.eus



**Irurtzango Udalak parte-hartze bilerak deitu ditu**



Sakanerria >> 3

**Sakanako Pilota Txapelketaren bederatzi finalak jokatu ziren larunbatean. Lakuntzan eta Arbizon jokatu zuten onenek**



Kirola >> 11



Alexen senideek, lagunek eta udalak ekitaldia antolatu dute larunbaterako, 12:00etan, Arbizuko San Juan ermitan.

## Alex gogoan, ekitaldia

>> 3

### Urtea 84 langabetu gutxiagorekin itxi genuen

Pixkanaka, gero eta emakumezko langabe gehiago daude (%56,93). Langabezia bederatzi herritan jaitsi zen.

>> 5

### D eredua irakaskuntza formula borobila dela gaztigatu du Mank-ek

Euskara, ingelesa eta gaztelania eskaintzen duen D ereduan matrikulatzeko deia egin du mankomunitateak

>> 9

### Lizarragako Kontzejua mediku etxearekin zer egin aztertzen

Ostatua egitea da aukeretako bat

>> 7



**Soziolinguistika inkesta eginen da Etxarri Aranatzen**

>> 9



**Xabier Bengoetxea, tenislari txapelduna**

>> 13



Mendeetan isilarazitako gure herriaren memoria berreskuratu eta eraiki dezagun.

Egin zaitetz Enneco lagun → [www.enneco.org](http://www.enneco.org)

Enneco MECNA proiektua da, beraz egindako aportazioen %80a itzuliko zaizu errenta aitortzean. Zatoz auzolanera eta izan zaitetz Sakanarako bereizgarri izango den proiektu berritzaile honen parte.

Ekainetik aurrera atek zabalduko ditugu.

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Tell./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Ametz**  
ZORIONAK Beste urte bat pasa da. Bizitzak dakarzikizun gauza on guztiak merezi dituzu. Asko Maite Zaitugu. Etxekook

**Beñat Gomez Maiz**  
10 urte, urtarilaren 27an. Zorionak etxekoen eta lagunuen partez

**Izan ZORIONAK!** Anakin Skywalker!!! 5 urte nire prezioso!!! Muxu handi asko familia guztiaren partez!!!

**Miren Sarasola ZORIONAK Miren!** Segi orain arte bezain alai! Zazpi muxu potolo etxekoen partez.

## Bazkideek deskontua

Bakarra:

**4,00€**

Bazkideek:

**3,50€**

## » Irurtzun

### Larraunen eta Barañainen arteko bertso desafioa Irurtzunen

Gaur, 20:00etan, Pikuxar euskal txokoan

Irurtzun aukeratu dute desafiara-ko bateko eta besteko bertso esko-  
lek. Bakoitza launa bertsolari ariko  
baita bere eremua ordezkaten.  
Larraungo laukotea Aitor Irastorzak,  
Juanmari Irastorzak, Joana Zigan-  
dak eta Latuk osatzen dute. Bara-  
ñaingoa, berriz, Mintxo Astizek,  
Pablo Indurainek, Ander Baianoketa  
Mikel Lasartek.



### Urtekarria kalean

Irurtzungeuskaltzaleen topagune-  
ak, Aizpeak, Ahotsen mintzoa urte-  
karia argitaratu berri du. Euskara  
hutsezko argitalpenean Irurtzun  
bizirik mantentzen duten gertakar-  
ien berri ematen da 36 orritan. Herri  
anitza izanik, urtean zehar, makina  
bat ekintza izaten dira Irurtzunen  
eta haiek jaso diraurtekarria.  
Ahotsen mintzoak urtaro bakoitza-  
ri dagozkin albisteak, argazki sor-  
ta eta bina elkarriketa ageri dira.  
Azken horiek "urte urte edo azken  
urteetan ezerezetik hasita ohitura  
bihurtu diren jardueren antolatzaile-  
leei egin diete". Hala, Isabel Mutilo-  
ari (errege kabalgata), Julen Marti-  
jari (pilotaria), Fermin Idaretari  
(abesbatzako zuzendaria), Guan-  
taldea (Ergarako krono igoera), Jose  
Javier Sarasola (abere azoka), Erra-  
tzak Astinduz (talde feminista), Juan  
Migel Matxain (San Martin jubilatua  
elkarrekin) eta Manuel Moreno (aben-  
duaren 31ko Ergarako igoera).

## Ilbeltza-otsaila

# 27-2

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Musika

**Tremenda jauria.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Gaztetxean.

**Pop-rock eta ganbera musika konboak.** Ilbeltzaren 30ean, astelehenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Altsasuko Musika eta Dantza Eskola.

### Antzerkia

**Soy la revolución.** Ilbeltzaren 28an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Aimara teatro.

**Atte hil aurretik.** Ilbeltzaren 29an, igandean, 19:30ean Irurtzunge kultur etxean. Beheko Lorraine antzerki taldea.

### Ipuin-kontalaria

**Maleta kontuak.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Proiekzioak

**Euskal proiektzioak.** Ilbeltzaren 20an, ostiralean, 20:00etatik 22:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Zinema

**El hombre perfecto.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**El faro de las orcas.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 29an 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**¡Canta!** Ilbeltzaren 27an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Comancheria.** Otsailaren 2an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean..

### Bizikleta irteerak

**San Benito ermita (48 Km.).** Ilbeltzaren 29an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinetik. Barranka txirridulari taldeko mendiko bizikleta taldea.

### Erakusketak

**Egunerokoak.** Ilbeltzaren 30era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. Mertxe Sueskun.

**Euskal Herriko inauteriak tantaka.** Otsailaren 1etik 15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan

19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. Javier Belasko..

### Hitzaldiak

**Guatemalan osasuna eta Nekazaritza jasangarria eta ingurumena El Salvadorren.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 19:00etan Irurtzunge kultur etxean. Hizlariak: Fabre fundazioa eta El Salvador Elkartasuna.

**Txaigorri proiektuaren aurkezpena.** Ilbeltzaren 31n, asteartean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlariak: Beñat Azurmendi eta Andra Mari ikastolako irakasleak.

**Sare-on: Sareko indarkeriaren fenomenoak.** Otsailaren 2an, ostegunean, 17:00etan Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan. Aurretik ikastolan izena eman.

### Bakarrizketak

**Alex Rabanal.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

### Bertsolaritza

**Larraun vs Barañain. Bertso desafioa.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzunge Pikuxar euskal txokoan.

### Tailerrak

**Sare sozialak: gehiegizko kontrola?** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Bestelakoak

**Denon artean ahal dugu 2020 planaren aurkezpena.** Ilbeltzaren

27an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikineko 1. solairuan. Ahal Duguko Eduardo Santos Itoiz diputatua.

**Altsasuko auzipetuaren gurasoen manifestuaren aurkezpena.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Aizpearen batzarra.** Ilbeltzaren 28an, larunbatean, 11:30ean Irurtzunge Pikuxar euskal txokoan.

**Alexi omenaldia.** Ilbeltzaren 28an, larunbatean, 12:00etan Arbizuko San Juan ermitan. Familia, lagunak, elkartekideak eta Arbizuko Udala.

**Ikusi-makusi.** Ilbeltzaren 28an, larunbatean, 17:00etan eta 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

**Youtubers I.** Ilbeltzaren 28an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Altsasukoak aske.** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Ilbeltzaren 29an, igandea, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Ilbeltzaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero  
**SAIOA**  
9:30ean  
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Alex gogoan
- Hesianeko Fran Urias
- Mila Kolore

ostiralean, zuzenean  
**Osasuna - Malaga**  
Liga jardunaldia. 20:30ean

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

## &gt;&gt; Arbizu

## «Alexen oroimenean eta ez ahazteko»

**Heriotzaren urte bat betetzen denean, Alexen omenez ekitaldia antolatu du familiak, larunbatean, 12:00etan, San Juan ermitan**

Erkuden Ruiz Barroso

Etxarritik Arbizura doan errepidean joan den urteko ilbeltzean izan zen ezbeharrak. Auto batek Alex Jaka arbizuarrak harrapatu eta gidariak ihes egin zuen. "Gurasoen min handiena hori da, Alex bakarrik gelditu zela", azaldu du Josu Agirre Alexen lehengusuak. Urte bat pasa da eta senideek oraindik ez dute gau hartan gertatu zenari buruzko erantzunik jaso. Alexen oroimena ez ahazteko omenaldia eginen dute San Juan ermitan, bihar.

"Lehenengo egunetan boom antzeko bat izan zen. Albiste asko izan ziren. Baina pixkanaka jendeak bere biziaren egin du, eta baretu egin da". Nagore Arrutiren hitzak dira, Agirreraren bikotekidea. Senideek ere biziarekin aurrera egin behar izan dute, baina "hori beti buruan" dutela esan dute.

Aldiz, lehenabiziko egunen informazio "boomaren" ondoren auzia ahaztu dela dirudi, eta senideek "gertatutakoa hor jarraitzen" dela gogoratu nahi dute, eta Alex omendu nahi dute ere.

Auzia ez da itxi, eta senideek "egia ezagutu behar" dute. Foruzaingoaren lana eskertzen dute eta dena argitu arte lan eginen dutela esan diete. "Baina laguntza behar dute. Eta egia da esan digutela jendeari kostatzen zaiola beraiengana joatea. Gu gaude hemen eta edozein informazio eskertzen dugu". Azaldu duteenez, edozein informazio, detaile txikiak, txorakeria badirudi ere, laguntza garrantzitsua izan daiteke. "Agian inork ez zuen ikusi momentu hura. Baina, adibidez: nik goizeko bostetan Alex errotondara joaten ikusi nuen. Detalle horiek behar ditugu. Guk jakin behar dugu berak zer ibilbide egin zuen gau hartan". Ez dira geldituko egia jakin arte. "Herriatik zoaz eta edozer gauza begira-



Alexen senide eta lagunak omenaldira deitzen.

tzen duzu. Kotxe horrek zerbait zeukan... Ez dakizu zer punturaino bihurtu den obsesioa". Herriaren laguntza eskertu nahi dute ere.

Egia jakinda aurrera jarraitzeko indarrak lortuko dituztela esan dute. "Ez dugu inoiz ahaztuko. Gertatuzena gertatuzen, istripuak edozein unetan gertatu daitezke. Baina min handiena da han utzi zutela". Urte gogorra izanda senideendako, gehien bat gurasoendako, "burua ez dute altxatzen".

Horregatik, Alex gogoratzeko eta auzia ez ahazteko prestatu dute omenaldia. Alexena ez ahazteko lan egiten segituko dute.

**Ekitaldia**

Bihar, San Juan ermitan ospatuko dute Alexen omenezko ekitaldia. Lehengusu-lehengusinak, senideak, Arbizuko Udala, koadrila, Arbizuko gazteak, kintoak, Andra Mari ikastolako ikasle eta irakasleek... parte hartuko dute. "Herria oso ongi portatu da. Jakin

zutenean omenaldia antolatzen ari ginela, laguntzeko prest agertu ziren". Zuhaitz bat landatuko dute eta ondoren Alex ezagutzen zutenek hartuko dute hitza. "Lehengusu-lehengusinek testu bat irakurriko dugu, gurasoek ere beste testu bat prestatu dute, Gazteek bertso bat egin dute...". Ondoren, auzatea eginen dute. Eguraldi txarra eginez gero, elkartean eginen dute; baina herri osoa dago gonbidatuta. "Alex bakarrik zegoen, baina ez dago bakarrik".

## &gt;&gt; Irurtzun

## Norberaren kaletik herria hobetzen

**Udaletxean hiru parte hartze bilerak egingen dira bihar. Udalak irurtzundarrak herria hobetzeko euren proposamenak egitera joatera gonbidatu ditu**

Irurtzundarrendako udaleko atea zabalik egoteko helburuz, Irurtzongo Udalak herritarren parte hartzea bultzatu nahi du. Alkateak jakinarazi duenez, "legegintzaldi honetan demokrazia parte hartzailearen bidean urratsak ematen jarraituko dugu". Horregatik, irurtzundarren iritzia ezagutzeko parte hartze bilerak deitu dituzte, aurreko urteetan parte-hartze aurrekontu dinamikarekin egin-

dako lanari bulkada emateko. Hala, bilerak joan zen urtean estreinakoz egin ziren. Esperientzia positiboaren ondoren, aurtun ere irurtzundar guztiak biharko bileretan parte hartzera deitu ditu udalak.

Herria hiru zatitan banatu du udalak eta, kaleka eta auzoka banatuta, hiru bilera egingen dira. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu zigunez, "bakoitza bizi den auzoan, zein premia eta behar dituen hobekien dakiena da. Horiek lehen eskutik jaso nahi ditugu, jendeak herrirako zein ideia eta behar sumatzen dituen". Guztia herria



Alkatea herritarrekin, 2016ko parte-hartze bilerak batean azalpenak ematen.

hobetzeko. Legegintzaldiko hurrengo bi urteetan egin daitekeen ariko dira ere. Horrekin batera, udal ordezkariak aurrekon-

tuan jaso nahi dituzten ildo nagusien berri emanen diete joaten direnei.

**Bileraren ordutegia eta kaleak**

**11:00etan** Oskia, Amaia, Ardubil, Itsesia, Aldapa, San Martin, Plazaola eta Trinitatea.  
**12:30ean** San Miguel, Urbasa, Artadia, Ardanzteta, Erga, Berria eta Elizpea.  
**16:30ean** Bi Ahizpe, Aralar, Larraun, Intxaurreta, Lizarra, Andia, Herria, Iturtxoko, Ugaldeta eta Behetiko Erreka.

**35.000 euro**

Irurtzongo Udalaren aurrekontuko diru kopuru hori zertara bideratuko den irurtzundarrek aurrekontu-partehartzaileen bidez aukeratu dute.

**Album ilustratu bat sortzeko HELDUENDAKO lantegia**

\*Otsailak 11 (larunbata)

\*10:30-13:30

\*Arbizuko liburutegia

Izen-ematea Arbizuko liburutegian otsailaren 3ra arte  
(948 017 777- liburutegia@arbizu.eus)

Emailak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso

Antolatzailea: Laguntzailea:

**Mank**  
s a k a n a

ARBIZUKO  
LIBURUTEGIA



# Negu gorrian

Xabier Reparaz

astekoa

Azkonarrak beren azkonarzuloe-tan gordetzen diren garaian, negu gorrian dugu Sakanako bizilagunen egunerokoa. Negu bizian oraindik, baina eguzki izpiek beta gehiago dute gure artean egoteko. Santa Agedako makilek lurra esnatu nahirik kolpatzeko gutxi falta zaigula dirudi. Ilbeltzeko aldapa

neketsuaren azken txanpan, gailurra begien bistan dugu. Elurren gesalak izotzak gogortzen ditu gauean, egunez zopilikatsubihurtzen diren artean. Hotzak negu gorrian hezurretan sarturik, dardar egiten maiz, azkar doazkigu gorputzetik urte hasierako kilo haiek. Pago erorien gorputzak

zatika erretzen ditugu sutondoan, etxeko babesean berotasuna gorde nahirik. Belarra bera ere erre zaigu izotzaren indarrak iharturik, lurraren garbitasun prozesuan buru belarri, harekin joan dira intsektu eta zomorro askoren azken arnasak.

Baina badira soroetan, kimu

berriak berdeturik jada, datorren gariaren itzal, espero dugunaren oroigarri. Basoko itxura grisak orbelbusti eta umelak betetzendu. Haren azpian mugitzen, zuhaitzen sustraiak handituz doaz lur barrenaren epeltasunean. Kanpotik ez dakusagun bizia lurpean da, orbel zaharraren babesean,

izotzetik urrun. Indarrak hartzen, itxaroten. Biziaren itzulera ospatzeko zain. Otsaileko haize fin izoztu guztiak ditugu aurretik ihote eta txatarren seinale hura entzuteko. Haien makilkadek berotuko dituzte herritarren hezurak. Izan dezagun bada datorren udaberriaren deiar hura, gogoan tenkor.

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunaren izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

### Urtebete Alex gogoan

Iñigo Orella Altzueta

Urtebete egingen du Etxarrin kintada batzuk ospatu zirela. Biharamunean albistea jasoen: Alex auto batek harrapatuta hil egin zen. Ezin sinetsi! Are gutxiago geroago jakin nuen, Alexi lagundu gabe gidariak ospa egin zuela eta ez zela azaltzen.

Alex eta berarekin bizitakoa burutik ezin kendu luze ibili nintzen. Mutil bizia eta alaia ikastolan ezagutu nuen. Atzerrik berandu etorri arren, ederki hitz egiten zuen euskaraz. Ikaskideek izugarri estimatzen zuten, denon arreta erraz bereganatuz. Teknologia gelan trebea zen eta esku tartean beti zeu-

kan zerbait. Ez dut ahaztuko Ibon eta Blancak Alexentzat hoberena bilatu nahian, oztopoz oztopo, maitasunez egindako ahalegina eta adierazitako inplikazioa.

Alexek Arbizu eta Etxarrin artean bizimodu berria topatu zuen bezala, bertan galarazi zioten. Aldi berean, harrapatu zuenak gizatasuna galdu zuen nire ustez. Gidari edota balizko laguntzaileen tokian jartzen saiatzen naiz, lortu gabe. Gogorra izan behar da gauez pertsona bat autoz harrapatzea, laguntzeko gelditzea ere, hala ere alde egitea ez da xamurra izanen. Hurrengo egunetan egindakoa aitortzea latza izanen da... eta ez aitortzea? Ez dakit zama horrekin bizitzeko gauza izanen ote nintzatekeen, baina ger-

tatutakoari ihesean ibili beharrean, aurre egin behar zaiola koan nago. Gertatutakoa izugarrikeria bat da eta ez du bueltarik. Alexen gurasoen minak ez du sendabiderik. Alex ez da itzuli, zoritxarrez. Hala ere, familiar gertatutakoa jakitea behar du, merezi du, bidezkoa da. Senideei eta egile berari on egingen dielakoan gidariari bidegabekeria argi dezan eskatzera ausartuko naiz.

Lerro xume hauetatik senitartekoei eta bereziki aita-amarire gertutasuna helarazi nahi diet. Tamalez zuen samina ezin dut arindu. Alex gogoan dudalarik jaso ezazue besarkada bero bat.

### Gurekin betirako Alex

Iñaki Tolosa (Andra Mari ikastolako Zuzendaria). ANDRA MARI IKASTOLAKO familia, langile eta ikasleen izenean

Gogoan zaitugu Alex! Gogoan ditugu, zure aurpegi eder horretan distira egiten zuten begi ilun eta zoragarri haiek, gogoan zure irribarre zabal eta gozoa, gogoa lagunen artean agertzen zenuen alaitasuna.

Hasierako garai haietan, zuk eman zenion zurtasunari kolorea, zu izan zinen, guretzat arrota zen beste kultura baten seinale. Nahiz eta, guregana iritsi baino lehen momentu zailak bizi izan zenituen.

Hasieran harrituta, gero pozik hartu zenuen zure familian eta ikastolan jasotako maitasuna eta elkartasuna. Ez zen erraza izan.

Hala eta guztiz, zailtasunaren aurrean ez zenuen inoiz zure irribarrea ezkutatu. Urteak jarraituz, ikastola utzi eta edonork egiten duen bezala, biziaren uretan igeri egiten ikasten hasi zinen; geldi-geldi, arrokei helduz, geldineak eginez, arnasestuka batzuetan, urpean sartu eta ateraz. Zoritxarrez, zure bizi ibilbidea motza izan da: ur-jauzira iritsi baino lehen, norbaitek ez dizu salto egiten utzi; arnasarik gabe utzi zaitu, alboan utzi zaitu. Gogoan zaitugu Alex! Eskertuta gaude zurekin pasatutako uneaz, zuk emandakoaz. Ikastolako familian senide izan zinen eta izango zara betirako. Zeruko isiltasunean, hain gertu eta hain urrun dagoen sabai horretan, zure aurpegi-ko izarrek dir-dir egiten dute elkar begiratzean.

## hara zer dien

### Pertsona guztiek gizarteratzeko eskubidea dute

Pasa den azaroaren 18an Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 223. alean argitaratu zen 15/2016 FORULEGEA, azaroaren 11koa, gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen.

Bertan argi geratzen da pertsona guztien gizarteratzeko eskubidea Nafarroako Gobernuak bermatu behar duela, izan ere, lege honen berrikuntza nabarmena horretan datza: bi aukera

zabaltzen ditu. Alde batetik, edozein pertsona gizarteratzeko prozesu bat aurrera eramateko eskubidea dauka eta beste aldetik, gizarteratzeko prozesua hasiteaz gain, diru sarrera bat bermatu beharra baldin badu eta baldintzak betetzen baditu Bermatutako Errenta jasotzeko ere bai.

Legearen beste berrikuntzen artean ondorengoak aipatu nahiko genituzke: 18 eta 24 urte bitar-

tekoek errenta bermaturako eskubidea izango dute, betiere eskatu baino bi urte lehenago bere gurasoen etxetik kanpo bizi izan badira. Hau frogatzeko eskatzen da urte beteko Gizarte Segurantzako altan egon izatea (nahiz eta urte hau jarraian ez izan).

Nafarroan 2 urteko erroldatzea eskatzen da eta hori ziurtatzeko erroldatze agiria erabiliko da. Eta agiria horrek ere balioko du zehazteko zein den familia

unitatea, hau da, konbibentzia agirian agertzen direnak. Beraz, bizi zaren tokian erroldatuta egotea ezinbestekoa izango da.

Enplegurako bultzatzaileak ere aipatzen dira, aurreko Gizarteratzeko Errentan ez zeudenak. Neurri hauekin lortu nahi dena da Bermatutako Errenta jasotzen ari den bati lanean hasteko ziurtasun ekonomiko bat izatea eta horretarako kontuan hartzen da lana zenbat denborara-

ko izango den eta soldata ere nolakoa izango den. Etxebizitza batean familia unitate bat baino gehiago bizi badira, unitate bakoitzak bere Bermatutako Errenta jasotzeko eskubidea izango du, beti ere baldintzak betetzen baditu.

Familia unitate bateko partaideak, lanerako adina edota baldintzetan baldin badago, Nafarroan altan egon beharko lukete eta eskaintzen zaien lanetara agertu beharko liriteke betiere jasotzailearen egoerarako egokia bada.

**Sakanako Gizarte Zerbitzuak**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILEA:** Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Erkuden Ruiz Barroso.

**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores Lazkoz.

**ARGITARATZAILEA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

**DISEINU ZERBITZUA:** GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea •

gk@gkomunikazioa.eus

**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995

**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

 **Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra

## SAKANA

# Urtea 84 langabe gutxiagorekin itxi genuen

**2016n langabezia %6,7 jaitsi zen, aurreko urteko %23,61eko jaitsieratik urrun**

Joan den urtea 1.252 sakandar langabezian genituela hasi genuen. Despeditu, berriz, 1.168rekin. Nafar Lansaren izena emandakoak 84 gutxiago izan ziren. 2016an ibarreko bederlatzi herrietan jaitsi zen langabezia: Irañeta, Uhartea Arakil, Arruazu, Arbizu, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. Gainontzeko seietan igo egin zen. Ehuneko pika bat jaitsi bada ere, langabetuen ia erdia altsasuarra dira.

Joerari jarraituz, pixkanaka, langabezia emakume aurpegia hartzen ari da. Urtean zehar zenbait hilabetez hamar langabetutik sei ziren emakumezkoak. 2016ko abenduaren 31n ibarreko 1.168 langabeetatik 665 emakumezkoak ziren, %56,03. Urte betean Nafarroko Enplegu Zerbitzuan izena emanda zeuden emakumezkoak 36 gutxiago ziren; langabezia jaitsieraren %42,86. Aurreko urtea 503 gizonezkoa langabezian zeudela despeditu genuen, %43,07. Urte betean 48 gizonezko gutxiago zeuden Nafar Lansaren zerrendetan, Sakanako langabeziaren jaitsieraren %57,14.

2016 urteak berretsi duen beste joera bat hau da: zenbat eta adin handiagoa izan orduan eta zailagoa lana opatzea. Ibarreko langabeen erdia, %50,68 (0,2 puntu gehiago), 45 urte edo gehiago zituen urte akaberan: 592, aurreko urteko azken egunean baino 40 gutxiago. 25 eta 44 urte arteko adin taldean 452 (%38,7; 1,56ko jaitsiera) sakandar zeuden urte akaberan lan bila, aurrekoan baino 52 gutxiago. Azkenik, gazteen lana opatze-ko zailtasunaren adierazle da 25 urte baino gutxiagoko adin tartearen izan dela 2016an langabetuetan igo dena: 124 (%10,62; 1,35 puntuko igoera), aurreko urtean baino 8 gehiago.

## Kontratazioetan, gizonezkoenak behera

Joan den urtean sakandarrek 7.435 kontratu sinatu zituzten, aurrekoan baino 443 gutxiago, %5,62 gutxiago. Nafarroan, berriz, kontratazioak %5,52 igo ziren. Gizonezkoen kontratazioak behera egitean generoen arteko parekotasuna lortu da, eta kontratuak erdibana banatzen dira emakumezkoen (%49,94) eta gizonezkoen (%50,06) artean. Azken hiru

urteetan joera bera mantendu da: Sakanan sinatutako hamar kontratuetatik bederlatzi (%93,93; 0,54ko jaitsiera) hasieratik aldi batekoa da. Joan den urtean mugagabe bihurtu ziren kontratuak %3,31 (0,42eko igoera). Azkenik, 2016an hasieratik mugagabe ziren kontratuak %2,76 izan ziren (0,16ko igoera)

Kontratu kopuru bera sinatuta ere, emakumezkoen langabezia handiagoa da, izan ere, gizonezko-



Eraikuntzako langileak.

Langabeziaren bilakaera udalerririk					
Udalerrria	2016-12-31		2015-12-31		Aldea
	Guztira	Sak %	Guztira	Sak %	
Altsasu	543	46,49	619	43,37	-76
Arakil	43	3,68	40	3,43	3
Arbizu	51	4,37	54	4,07	-3
Arruazu	4	0,34	5	0,32	-1
Bakaiku	15	1,28	13	1,20	2
Ergoiena	14	1,20	11	1,12	3
Etzarri Aranatz	127	10,87	123	10,14	4
Irañeta	5	0,43	7	0,40	-2
Irurtzun	152	13,01	149	12,14	3
Iturmendi	16	1,37	19	1,28	-3
Lakuntza	53	4,54	48	4,23	5
Olatzagutia	83	7,11	96	6,63	-13
Uhartea Arakil	33	2,83	37	2,64	-4
Urdiain	21	1,80	22	1,68	-1
Ziordia	8	0,68	9	0,64	-1
<b>Sakana</b>	<b>1.168</b>	<b>100,00</b>	<b>1.252</b>	<b>93,29</b>	<b>-84</b>

Langabezia. Generoa					
	2016-12-31		2015-12-31		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Gizonezkoak	503	43,07	551	44,01	-48
Emakumezkoak	665	56,93	701	55,99	-36
<b>1.168</b>			<b>1.252</b>		

Langabezia. Adina					
	2016-12-31		2015-12-31		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
<25	124	10,62	116	9,27	+8
25-44	452	38,7	504	40,26	-52
>=45	592	50,68	632	50,48	-40
<b>1.168</b>			<b>1.252</b>		

Langabezia. Sektoreak					
	2016-12-31		2015-12-31		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Lehen sektorea	22	1,88	28	2,24	-6
Industria	297	25,43	313	25	-16
Eraikuntza	63	5,39	81	6,47	-18
Zerbitzuak	708	60,62	750	59,9	-42
Aurretik enplegurik gabe	78	6,68	80	6,39	-2
<b>1.168</b>			<b>1.252</b>		

ek baino aldi baterako kontratu gehiago sinatzen dituzte (140). Gainera, emakumezkoen baina sinadura gutxiago daude hasieratik mugagabeak diren kontratuetan (125-80) eta mugagabe bihurtzen diren kontratuetan (175-71).

Sakanan 2016an sinatutako kontratuak %54,12 zerbitzuen sektorean aritzeko zen. Industriak kontratuak %41,49 bereganatu zituen. Eraikuntzak kontratazioaren %3,59 hartu zuen. Eta, azkenik, lehen sektoreak %0,79. Ibarreko kontratuak Nafarroako %2,08 izan ziren (0,24 gutxiago).

Langabeziaren garapena				
Data	Guztira	Gizon	Emakume	
2009 / 06	1.230	619	611	
2009 / 12	1.342	630	712	
2010 / 06	1.438	666	772	
2010 / 12	1.500	672	828	
2011 / 06	1.505	698	807	
2011 / 12	1.603	764	839	
2012 / 06	1.661	794	867	
2012 / 12	1.864	924	940	
2013 / 06	1.842	941	901	
2013 / 12	1.770	898	872	
2014 / 06	1.545	701	844	
2014 / 12	1.639	801	838	
2015 / 06	1.281	545	736	
2015 / 12	1.252	551	701	
2016 / 06	1.097	430	667	
2016 / 12	1.168	503	665	

Kontratuak / Generoa					
	2016		2015		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Gizonezkoak	3.722	50,06	4.163	52,84	-441
Emakumezkoak	3.713	49,94	3.715	47,16	-2
<b>Guztira</b>	<b>7.435</b>		<b>7.878</b>		<b>443</b>

Kontratuak / Motak					
	2016		2015		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Hasi Mugagabe	205	2,76	208	2,64	-3
Hasi aldi baterako	6.984	93,93	7.442	94,47	-458
Mugagabe bihurtua	246	3,31	228	2,89	18
<b>Guztira</b>	<b>7.435</b>		<b>7.878</b>		<b>443</b>

Kontratuak / Sektoreak					
	2016		2015		Aldea
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Abeltzaintza	59	0,79	32	0,41	27
Industria	3.085	41,49	3.508	44,53	-423
Eraikuntza	267	3,59	205	2,6	62
Zerbitzuak	4.024	54,12	4.133	52,46	-109
<b>Guztira</b>	<b>7.435</b>		<b>7.878</b>		<b>443</b>

**Txalaparta**

**Taberna**

**948 467 070**  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta**

Asteleheneretik ostiralera  
**Eguneko menua  
9€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

**948 467 876 • Altsasu**

**Kaixo**  
Kafetegia - Jatetxea

TATETXEA - RESTAURANTE • KAIKO • BAR-CAFETERIA

**GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
www.restaurantekaixo.com**

## » Irurtzun

## Elkartasuneko %0,7a nora doan jakiteko hitzaldiak



Gaur eta heldu den ostiralean, 19:00etan, kultur etxean

Irurtzungo Udalak bere aurrekontuaren %0,7 behar duten herrialdeetan garapena sustatzeko proiektuetara bideratzen du. Konpromiso hori lau proiektutan gauzatu zen joan zen urtean. Irurtzungo Udalak babestutako garapen proiektuak ezagutarazteko bi hitzaldi antolatu ditu, gaurko eta heldu den ostiralerako.

Hitzaldi bakoitzean Irurtzunen laguntzarekin aurrera ateratako bi proiektu aurkeztuko dira. Gaur Fabre fundazioko kideek

Guatemalan osasuna garatzeko egin duten proiektuaren berri emanen dute. Haien ondoren El Salvador Elkartasuna elkarteak hartuko dute hitza, herrialde hartan nekazaritza jasangarria eta ingurumena nola landu dituzten azaltzeko.

Heldu den ostiralean Itxipuru taldeko kideek El Salvadorren tokiko garapena eta trebakuntza sustatzeko egindako lana azalduko dute. Eta hitzaldi zikloa RAS-Den lagunek itxiko dute, Saharan hezkuntzarako testu liburugintza arloan egindako lana azalduz.

## » Irurtzun

## Aizpeak bazkideak batzarrera deitu ditu

Larunbatean, 11:30ean, Pikuxar euskal txokoan

Aizpea, euskaltzaleen topaguneak urteroko batzarra egingen du bihar. 11:30ean jarri dute hitzordua bazkideekin. 2016ko kontuak eta memoria aztertu, karguak berritu eta aurtengo plangintza aztertu eta egoki joz gero onartu egingen dute.

## » Altsasu

## Txerri-hilketa La Encina elkartearen

Garai bateko txerri-hilketa biziberritzeko aukera izanen du edozeinek La Encina elkartearen bihar. Garai batean hildako txerria nola zatikatzen zen eta gero harekin produktuak nola egiten ziren gogoratu nahi duenak 11:00etatik aurrera dute aukera Altsasuko Extremadurako kultur zentroan. Aurretik elkarteak Extremadurako erara prestatutako ogi-apurrak dastatuko dituzte. Eta eguerdiko lanak despiditu ondoren, extremadurak ohiko bazkaria izanen da. + www.guaixe.eus

## San Anton, Sakanan

## Sanantondarren bilkurak

Sakanako San Antonen lau kofradiak euren eguna ospatu zuten asteburuan. **Dorrobarrak** larunbatean 9:00etan elkartu ziren. Batzarraren ondoren Itur-aldea elkartearen bazkaldu zuten 22 kideek.

**Bakaikun** ere larunbatean elkartu ziren, 13:00etan elizkizunean. Haren ondoren Bakarrek-etea elkartearen batzarra eta bazkaria izan zuten 95 kideetatik 54.

**Iturmendin** igandean elkartu ziren 25 kideak. Bi berri batu ziren kofradiara. Batzarraren ondoren Aritzaga elkartearen bazkaldu zuten.

**Urdiaingo** 48 sanantondarrak larunbat eguerdian mezan elkartu ziren. Gosaldu, batzarra egin eta arduradun berriak aukeratu zituzten. Aitziber elkartearen bazkaldu ondoren arduradunen etxean despiditu zuten ospakizuna. + www.guaixe.eus



Dorraako arduraduna Julian Lizarraga Larraza da aurtien. MIKEL LIZARRAGA



Bakaikun hiru baja izan ditu kofradiak, altarik ez. ERKUDEN RUIZ BARROSO



Iturmendiko kofradiak bandera zahar berritza beharrezkoa den aztertuko du.



Urdindarrek sainduaren omenezko kanta abestu zuten. ERKUDEN RUIZ BARROSO

## San Sebastian

## » Lakuntza

## Primerako giroa Lakuntzako festetan



Ostegun gauean, San Saastin bezperan hasi eta igandearekin despiditu ziren San Saastinak. Gauerdian 60 danborrarik jo zuten danborradan, Lakuntzako abesbatzaren Ozarki txarangaren laguntzaz (Haize Berriak bandako musikarekin indartu zen). Ostirala izan zen festetako egun handia. Goizean lakuntzarrak erromerian joan ziren ermitara eta auzate ederra prestatu zuen Lakun-

tzako Pertza elkarteak. Jakina, bezperan danborradan Ohorezko Txanoa jantzi zuen Sabino Navarro gozogileak prestatutako piperropilak dastatzeko aukera izan zen. Arratsaldean danborradatik xikiaren txanda izan zen eta ondoren hasi zen Elai Alai dantza taldearen emanaldia. Segidan aurtengo Lakuntzako kintoek Alkate Dantza dantzatu zuten alkate eta zinegotziei. Aipatze-

koa da aurtengo piperropil txapelketa Lourdes eta Rosario Soto ahizpek irabazi zutela, bosgarrenez. Larunbatean erraldoi eta buruhandiak atera ziren eta gaitari eta musikariei esker primerako giroa izan zen Lakuntzako kale, taberna eta txokoetan. Igandean despiditu ziren festak, haurrendako puzgarri eta bestelakoekin.

+ www.guaixe.eus

## » Olatzagutia



## Olaztiarrak ermitan

Ostiralean olaztiar ugari pasa zen San Sebastian ermitatik. Eguerdiko elizkizunean erlikia gurtu ondoren, auzotarrek prestatutako auzateaz gozatzeko aukera izan zuten bildutako guztiek. Arratsaldeko arrosarioaren ondoren txokolate-janak, atzera ere, ermita bilgune bihurtu zuen. Ospakizuna frontoian despiditu zen, udalaren auzatearekin.

## » Lizarraga

## Medikuaren etxearekin zer egin aztertzen

Lizarragako Kontzejuak 2.000 euroko diru-poltsa sortu du medikuaren etxearekin zer egin aztertze-ko. Kontzeju-buru Xabier Senar Veigak azaldu digunez, asmoa litzateke taberna eta denda txiki bat jartzea, Arruazun dagoenaren modukoa. Hori nola egin jakiteko arkitektoekin eta aparejadoreekin egon nahi dute lehenik kontzejukoek, medikuaren etxeak zein aukera ematen dituen jakiteko. Eta dauden aukerak zein diren jakin ondoren, egoki jotzen badute, hura gauzatzeko diru-laguntzak eskatuko dituzte.

Senarrek azaldu digunez, Liza-

rragako Kontzejuaren aurtengo aurrekontua, 108.500 eurokoa, diru-laguntzak baldintzatuta egonen da. Argi dute argiteria publiko aldatu eta led bidezko argiak jarriko dituztela, argi kontsumoa murriztu eta faktura txikitzeko. Senarrek azaldu digunez, beste hainbat ideia lantzen ari dira kontzejuan, "baina oraindik ez daude zehaztuta". Horiek aurrera eramateko Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planeko, Industria Departamentuko eta Europako diru-laguntzak aztertzen ari dira, elkarrekin bateragarriak diren edo ez, eta kontzejuak inber-

tsioei aurre egiteko ahalmena duen edo ez aztertzeke.

Horregatik, aurten bide konponketara ez dute dirurik bideratuko. Joan den urtean San Martin ermitarako bidea konpondu zuten. "Urak nahikoa hondatua zuten eta ezpondak atera eta zuloak tapatu zituzten". Azkenik, "jendea etxetik ateratzeko, kultura pixka bat mugitu nahi dugu, pixkana" esan digu kontzeju buruak. Horren adibide, larunbatean izan zen Iker Zubeldiaren eta Jon Maiaren bertsoafaria. Korrika dela eta, hitzordu berria izanen dela ere aurreratu digu.



Medikuaren etxearekin zer egin aztertzen ari da kontzejuak. ARTXIBOIA

## » Unanu



Maistruben etxea konpontzeko lan ugari egin zuten joan den urtean.

## Kontzejuak inbertsioetarako diru-laguntzen zain

Unanuko Kontzejuak aurten 76.220 euroko aurrekontua izanen du. Kontzeju buru Joseba Imaz Berastegik esan digunez, led bidezko argiteria publikoak jartzeko eta maistruben etxe lanak despeditzeko diru-laguntzak eskatuko dituzte. Nafarroako Gobernuak Toki Azpiegitura Plana onartzeko da eta haientara eskaerak aurkeztu ditu Unanuko Kontzejuak. Baita 10.000 euroko diru-saila gorde ere.

Argiteria publikoaren kasuan,

aurrena ikerketa egin beharko litzateke eta gero aurrekontuaren arabera, edo kolpean edo zatika, argiztapen sistema berria jarri. Neurri horrekin eta kontratuen berrazterketarekin argindar kontsumoa jaitsi eta haren faktura txikitu nahi du kontzejuak. Bestetik, maistruban etxea zena konpontzeko auzolan ugari egin dituzte eta enpresabatek kanpoko parte konpondu du. 60.000 euro inguruko inbertsioa izan da kontzejuarendako, "gastu handia",

Imazek aitortu duenez. Zaharberri-tzeagatik 11.000 euroko laguntza jaso du, baina aurrekontu handiari buelta emateko gobernuaren laguntza nahi luke kontzejuak.

Bestetik, kontzejutik Ingurumen Departamentuarekin harremanetan jarri dira: "herrian etxeren bat botako balitz hango harriak eta teilak bideen konponketan erabiltzeko eskatu digu eta erantzunaren zain gaude", esan digu Imazek.

## » Altsasu

## Udalak hiru udaltzain plaza aterako ditu

Gaur egun Udaltzaingoa bi agentek eta bi laguntzailek osatzen dute. Asteleheneetik ostegunera goiz eta arratsaldean ari dira eta ostiral, larunbat eta domeketan, berriz, goizez soilik.

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek jakinarazi digunez, aurtengo aurrekontuak eta plantilla organikoak onartu ondoren, Udaltzaingorako hiru agente plaza betetzeko deialdia egingen du udalak. Gainontzeko plaza jubilatzaile agatik desagertu dira eta ez dira

bete. Prozedura berria izanen da, izan ere, duela urte batzuk Altsasuko Udalak eta beste udal batzuk onartutako deialdiak deuseztatu zituzten Nafarroako Gobernuak. Altsasuko alkateak jakinarazi du plantilla aurki aurkeztuko dutela plenoan. Aurrekontuen zirriborroa gainontzeko taldeekin eztabaidatzen ari direla jakinarazi du eta han hiru lanpostu horien dako diru-saila jaso dagoela jakinarazi digu alkateak.



Udaltzaingoa ibilgailua.

## 2016ko datuak

Jasotako telefono deiak	2.404
Gizarte-kultur arloko probetan parte-hartzea	54
Trafiko gaietan parte-hartzea	295
Aberekin zerikusia duten gertakariak	111
Familia eta auzokide kasuetan esku-hartzea	456
Trafiko istripuak	41
Salaketak	206
Zaratak sortutako kexak (sonometriak)	16
Jabeei galdutako objektuak bueltatzea	161
Tabernekin zerikusia duten gaietan esku-hartzea	29
Azoka, festa, feriak eta bestelako jaietako jardunak	192

Isunak	Kopurua	Dirutan
Zergatia	224	20.070
Trafikoa	12	1.950,71
Animaliak	1	30
Hondakinak	4	750,01
Merkataritza	1	225
Osasuna	1	30
Tabernak	243	23.055,72
<b>Guztira</b>		

**91.3565 euro**

Guztira diru hori biltzen du Udaltzaingoa. Azokan postua jartzeagatik zoru publikoaren okupazioagatik egiten den diru-bilketaz arduratzen da. Haren bidez 23.025,94 euro jaso dira. Ostalaritzako terrazengatik 13.802 euro biltzen ditu udaltzaingoa eta kamioien aparkalekuko plazen alokairuagatik 7.590 euro. Azken horren inguruan alkateak jakinarazi du atea berritu beharra dutela.

CITROËN C3 BERRIA


AS UNIQUE AS YOU ARE.

120€/hilabetean

47 KUOTA | SARRERA: 2.221€ | TAE % 8,04

AZKEN KUOTA: 5.624,50€

ESKAINTZA 2017/02/28RA ARTE



CITROËN

CITROËNek TOTAL nahiago. KONTSUMO MIXTOA(l/1000km) / CO2 ISURIA (g/km): CITROËN C3:3, 2-4,7 / 83-109. SALNEURRIA 11.200,30€ Penintsula eta Balearretarako C3 Pure Tech 82 Feel Berriarentzat (zergak, garraioak eta eskaintzak barne), PSA FINANCIAL SERVICES SPAIN, EFC S.A. ren bidez 48 hilabeteko gutxieneko permanentziarekin finantzatu duen bezero partikularrentzako, era berean erosten izenean 3 hilabetez dagoen kotxea utzi beharko delarik. Irekitze gastuekin finantzatutako kapitala: (354,68€ / 9.333,98€. TIN:%6,4. Zor den diru guztia:11.264,50€.Epetako prezio osoa:13.485,50€: 50.000 Km eta 48 hilabeteko kontrato baten iraupenerako kuota. Kontratoaren amaieran aukeratu da, kotxea utzi, edo azken kuota ordaindu edo finantzatu. Finantzatu ez duen bezeroarentzat:

8 URTE  
CITROËN ASISTENCIA  
DOAKO ASISTENTZIA  
ISTRIPU ETA MATXURIA

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

## barrutik kanpora Pentsioak

Berriz ere jubilatuen pentsioak guztion ahotan dabilta azkeneko denboraldi honetan eta, zoritxarrez, ez gorakada nabarmena izan dutelako. Aurreko urte-eta igoera ziztrinarekin oso murrizak gelditu dira, %0,25 igotzeak ezer gutxi suposatzen du. Gobernuak irizpide honen arabera igotzeko erabakia hartu zutenean, aurrekustenguea gertatzen ari da. Kontsumoko prezioen indizeak gora egin ahala, pentsioen erosteko ahalmenak nabarmen behera egin du. Honek esan nahi du urtetik urtera gutxiago kobratzen dugula, gero eta luzeagoa egiten zaigula hilabetea.

Beste alde batetik Pentsioen Sistema Publikoaren kezkak eta zalantza sorrazteko ahalgintetan dabilta, Sistema Publikoari ukatzen dizkioten gaitasun eta ziurtasuna, Banku eta Aseguru-etxei onartu eta eman nahi dizkiete. Hauek dira arazo honen atzean ezkutaturik dauden basapiztiak, harrapakin erakargaria dute aurrean, urtean zehar Gizarte-Segurantzak kotizazioaren bidez jasotzen dituen 110.000 milioien jabe egiteko aukera, ez da hozkada makala! Aspaldi ikusi zuten hauek paregabeko aukera hau, eta batez ere krisi garaian erabiltzen dituzte baliabide guztiak, guri beldurra sartu eta pentsio pribatueta bideratzeko.

Egoera hau PPren Gobernuak sortu du, botere finantziarioen interesak, bankuen zorrak, enpresa talde batzuen presioak, ongizate sozialaren aurretik ezarri ditu. Pentsioen Sistema Publikoaren diru sarrerak bermatzeko erabakirik ez du hartzen, alderantziz, diru sarrera horiek mozten ari dira: langabezia, prekaritatea, soldaten jaitsiera, kotizazio salbuespenak, pentsioen kutzako diruaren iruzurrezko erabilpena. Hau dena isildu eta zer esaten digute guri? Jubilatuen kopurua kotizatzen duten langileena baino haundiagoa dela eta dirurik gabe gelditzen ari direla.

Mezu hau gezurra da, pentsioek, kotizazioen bidez aurrezten den dirutik ordaindu behar direla sinestara digute eta hori ez da egia. Erregeetxeak, Elizak, Militarrak, Poliziak zergatik ez dituzte mehatxatzen beraiei ordaintzeko dirurik ez dagoela esanez? Estatuak egiten dituen aurrekontuetatik ordaintzen ditelako eta horiendako ez dago murrizketarik. Ba guk gauza bera eskatzen dugu. Aurrekontuetan sar dezatela jubilatuek bizi duin bat izateko behar dugun diru kopurua, hori da diru banaketa justu bat egiteko aukerarik hoberena, eta hori da jubilatuek aldarrikatu behar duguna.

**SASOIA jubilatuen elkarte**

» Etxarri Aranatz

## Kolaborazio-proiektu saritua martxan da eskolan

Hezkuntza Departamentuak ikasturte hasieran Etxarri Aranatzko San Donato eskola publikoa *Samsung smart school* proiekturako aukeratu zuen. Horretarako, departamentuak kontuan hartu zuen herri eskola izatea eta teknologi berrien funtzionamendurako izan beharreko baldintza guztiak betetzen zituela. Orduetik, tablet berezien bidez hezkuntza kolaborazio-proiektu bat aurrera eramaten ari dira San Donato eskola, zehazki LHko 5. mailak. Aurretik soilik Cadreitako eskola zegoen proiektu horretan eta departamentuak eremu euskalduneko beste baten alde egin zuen.

Proiektua gauzatzeko irakasleak trebatu egin ziren lastailean: jasotako tabletek dituzten aukerak eta proiektu kolaboratzaileak nola egin ikasi zuten. Horretarako, haietako batzuk Madrilerara joan ziren. Behin trebakuntza jasota, ikasleak tablet bana eskutan izanik kolaborazio-proiektu bat sortu eta aurrera eramaten hasi dira. Lehenik haiek erabiltzen ikasi

zuten eta behin hori egin eta gero proiektuan dauden beste ikasleekin harremanetan daude etengabe. Hala, jende berria ezagutu, tabletek eskeintzen dizkien aukerak guztiak arakatu eta erabili ahal izanen dituzte. Kompetentzia digitalekin batera, ikasleak gainontzeko gaitasunak konturatu gabe garatzen ari direla esan digute eskolatik.

### Programaz

Samsungek Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta 13 erkidegoren eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoren artean garatu dute. 2014an abiarazi zuten. Herri-tar korporatiboaren programan estatuko 36 ikastetxe publiko 88 gela (2.400 ikasle eta 500 irakasle) ari dira parte hartzen. Etxarrikoa da euskaldun bakarra. Tabletan eta arbel interaktiboetan oinarrituta irakaskuntza eta ikaste prozesuak hobetu nahi ditu.

Hezkuntzarako Teknologia Erakustokiak ematen duen Simo Hezkuntza 2016 saria jaso zuen pro-



Ikasleak gelan, tableta mahaian dutela. UTZITAKOIA

gramak lastailean; "kalitatezko hezkuntzarako sarbidea errazte-agatik, baliabide tekniko eta metodologiko egokiek, ikasle bakoitzaren bizitokia edo sozio-ekonomia ingurunea kontuan hartu gabe". 327 hautagaitza aztertu zituen epaimahai adituak. Zehazki, urteko ekimen onenaren saria eman zioten teknologia berrien eta ikasgelako baliabide sailean. Simo sariak hezkuntzan informazio eta komunikazio teknologia garatu

eta ezartzeko profesionalek, enpresek eta erakundeek egindako lana aitortzen dute.

## Saria

Hasiera ezin hobea izan zuten. Izan ere, Samsungek antolatzen duen eguberritako postal lehiaketan Olaia Erdoziak, Olentzereoren postal batekin, saritua izan zen, tableta eskuratu zuen.

» Altsasu

## Hitzaldi bira antolatu du herri asanbladak



Hitzaldi biraren aurkezpena. Biharko Soto del Real espetxera martxa dago.

**Hego Euskal Herriko 30 eskualdeetan hitzaldiak lotuta dituzte. Helburua: "Altsasun eta Sakanan pairatu dugun eta pairatzen dugun egoera errepresiboaren berri ematea sakandarren eta altsasuarren ahotik"**

Ferietako liskarraren ondoren sortutako herri-asanbladak "hedabide gehienetan opatutako manipulazio-kutsadurari aurre egiteko" eta "euren mezua zuzenean emateko", Euskal Herrian barna hitzaldi sorta antolatu du, *erreprezioaren aurka, desmilitarizazioa piztu* leloa hartuta. Momentuz Hegoaldekoak dituzte lotuak. Dagoeneko hasi dira eta maiatza bitartean luzatuko da bira. Hitzaldi sortaren berri sare sozialetan emanen dute, Entzun Altsasu izenpean zabalduetako profiletan.

Herri asanbladatik adierazi dutenez, "gure herriaren eta eskualdearen inguruko iritziak kanpoko begirada intoxikatzaileekin egiten ari dira, gu kriminalizatzeko asmo argiarekin". Hitzaldi sortarekin "bertan bizi garenon kontakizunak" zabaldu nahi ditu. Aldi berean, adierazi dute "gure solasaldiak, herri eta auzoetan desmilitarizazioaren inguruko eztabaida pizteko baliagarri izatea" espero dutela. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

### Arrakastatsua

Altsasuko zazpi elkartek auzipetuen alde antolatutako elkartasun eguna.

»

## Auzipetuen gurasoek manifestua aurkeztuko dute

**Gaur, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur guneko areto handian. Tokia bete arte emanen dira gonbidapenak**

Ferietako larunbat goizaldean izandako liskarraren ondorioz 11 gazte altsasuar auzipetuta daude. Haien gurasoek, Altsasuko Gurasoak, txostena osatu dute, hiru zati dituen: gertaeren kronologia, lege-azterketa eta manifestua. Azken hori da hain zuzen ere gaur jendartean aurkeztuko dutena Altsasun (ostegunean, Iruñean). Altsasuko Gurasoak taldetik jakinarazi dutenez, manifestuarendako atxikimenduak bilatuko dituzte. Aurkezpenaren dagoeneko atxiki diren eragile batzuen babesa izanen dute.

»

## Ahal Dugu batzarrera begira

Vistalegre II izenez ezagutzen da Podemos-Ahal Duguk Madrilen otsailaren 11rako antolatu duen batzarra. Alderdiaren zirkuluak eta kideak aurkeztutako txostenak aztertzen ari dira aurretik. Batzar aurreko dinamika horren barruan Eduardo Santos Itoiz diputatua Altsasun izanen da gaur. Berak *Podemos para Todas* izeneko programa azalduko digu. Gure Etxea eraikineko 1. solairuan izanen da, 18:30ean.

» Olatzagutia



## Pintxo-poteak saria du

Infernuerreka, Olatzagutiko tabernak biltzen dituen taldeak, urtea bete du. Eta sari emate baten berri emanez ospatu du. Izan ere, 2016 despeditzeko herriko produktuez betetako ikaragarriko saskia zozketatu zuten pintxo-potean parte hartu zutenen artean. Sarituak Jaione Santamaria, Cristina Lanchares eta Izaro izan dira. Taldeak segida izanen duela iragarztearekin batera, bere ordezkariak jakinarazi digute pintxo-pote eskaintza egiten segituko dutela. Horregatik, ostiralean 19:30etik 22:00etara Clinker, Erburua, Barandi, Aixeleku, Bujanda eta Agedi tabernetatik edo kafetegietatik pasatzeko gonbidapena luzatu dute. Pintxo-potea dela eta 2016an zehar hainbat sari banatu zituzten honakoek eskuratu zituztenak: Rosa Ganuza, Xabier Grados, Lara Aldaz, Idoia Kintana eta Paco Galeano.




## SAKANA

# D eredia, formula borobila!

**Euskara, ingelesa eta gaztelania eskaintzen duen ereduari, D ereduari matrikulatzeko deia egin du Sakanako Mankomunitateak**

Nafarroako makina bat toki entitatek D eredia, formula biribila! dela diote. D ereduaren aldeko kanpaina abiatu dute. Izan ere, heldu den ikasturtean lehen aldiz eskolatuko diren haurren aurrematrikulazioa egiteko epea otsailaren 13tik 17ra egon da zabalik eta haurren gurasoei euskarazko irakaskuntzaren, D ereduaren, onurak ikusarazi nahi izan dizkiete kanpainaren bidez.

D ereduaren egokitasuna azaltzeko formula osatzen duten elementuak azaldu dituzte ere. Bate-tik, kalitatea dago. "Fidatu heziketarako proiektu ezin hobean. Esperientziaren eta urteetan lor-



Aurten ere Mank-ek D ereduaren aldeko kanpaina abian jarri du.

tutako emaitza onen bermearekin". Bestetik, baloreak. "Seme-alabek ingurune anitz eta bateratzailean ikasiko dute, non elka-

rrizketa, begirunea eta balore positiboak sustatzen diren. Gainera, hurbileko komunitate dinamiko batek behar duzun lagun-

tza eta sostengua emanen die gurasoei". Hiru hizkuntzetako eskolatzera da formula borobil horren beste elementu bat, "inguru globalizatu batean bizi behar diren ikasleen hezkuntzarako eta lanerako aukerak biderkatuz. Beste kultura batzuk ulertzeko eta etorkizuna aukeratzeko askatasun gehiago". Formulako elementuen zerrendarekin segituz berrikuntza bikoitza dago: "bai metodologikoa baita pedagogikoa ere. Hizkuntzak irakasten aitzindaria den hezkuntza-eskaintza. Etengabe aztertzen eta hobetzen den erabateko hezkuntza". Formulako azken elementua, eskarmentua da: "euskarazko hezkuntzaren 35 urtetako esperientzia zuen seme-alaben

zerbitzura. Ibilbide luzea emaitzarik onena bere ikaslerian duen hezkuntza-proiektuarendako".

## Kanpainaz

24 udal eta mankomunitate dira, tartean Sakanakoa. D ereduaren aldeko mezua zabaltzeko bidea, kartelak eta eskuorriak. Azken horiek hiru urte beteko dituzten haurren familiei etxera igorriko dizkiete, gutun informatiboarekin batera.

# %84,3

Ikasturte honetan Sakanan haur hezkuntzan matrikulatutako haurren kopurua.

## Urdiain / Altsasu

### Gartzia Ximenez errege izendapena gogoratu zuten

San Pedro ermitako ateburuan idatzitakoak dio Gartzia Ximenez 717ko ilbeltzaren 20an aukeratu zutela. 600 gizonen artean, berdinaren artean, izan zen aukeratu errege, beste monarkia batzuetan jainkoaren graziaz egin zen. Ostiralean 1.300 urte bete ziren. Marcos Alvarez Basartek eta Juanma Galanek urteurrena gogo-



ratzeko herritarrek Urdiaingo eta Altsasuko San Pedro ermita inguruan biltzera deitu zituzten. 30 bat herritar elkartu ziren. Elkartutakoen artean ardoa banatu ondoren, Gregorio II.a Aita Santuaren 717ko agorrilaren 30eko bulda irakurri zuten. Han aukeraketaren berri ematen da.

Gerrek, inbasioek eta bestelakoek eragindako erreketekin mendeetan zehar artxiboak galdu dira Sakanan. Aipatu buldaren berri Urdiainen eta Altsasuren arteko 1.647ko auzi baten dokumentazioaren artean opatu zuen Rafael Karasatorre ikerlari etxarriarrek eta bere historia blogean du irakurgai: <http://documentanavarra.blogspot.com.es/2014/02/urdiain-alsasua-717-eleccion-de-rey-de.html>.

## Hilbeltzak 20

Ostiraleko ekitaldiko deitzaileen iritziz, nafarrendako eta burundarrendako egun hori garrantzitsua izan beharko luke. Urtero ilbeltzaren 20an ekitaldi bat egitera deitu dute.

# Sakanako xendak Fiturren

Madrilgo nazioarteko turismo azokan, Fiturren, Sakanako mapan kokatzen ziren Sakanako Garapen Agentzia (SGA) eta Bidelagun turismoelkartea aurreko ostegun eguerdian. SGAn turismo teknikari Paki Urbitartek jakinarazi digunez, "Nafarroako Gobernuak bere standeko gai nagusi gisa ibilbideak hartu zituzten, Sakanako xenden berri emanez han egon beharra gurela uste genuen". Urbitartek esan digunez, "Sakanan kalitatezko ibilbide edo xendak daudela eta ibarrra garraio publikoan, tren ez

autobusez, etorri daitezkeela nabarmendu genuen". Aurkezpenak "harrera polita" izan zuela esan digu Urbitartek. "Gainera, gobernuko egindako lana ikusi zuten".

Joan den urtean SGAn eta Bidelagunek ibilbideen inguruko azterketa egin zuten. Hainbat ibilbide aztertu zituzten. Baina denen egoera berdina ez zenez, zenbait irizpide zehaztu eta haiek betetzen dituzten ibilbideekin lanean hastea erabaki zuten. Aurreneko fase honetarako ibilbideen hasieran informazio panelak dituzten ibil-



Sakanako ordezkariak FITUREN azalpenak ematen.

bideak, egoki seinaleztatuta eta egoera onean daudenak aukeratu dituzte. Baldintza horiek dituzten ibilbide horien herrietako udal-ekin hitzarmenak sinatu dituzte ere.

Guztira 16 bat ibilbidez osatutako sorta bat aurkeztu zuten. Haie-

tako 4 Urbanan daude eta gainontzekoak herrietan. Haien berri ematen duen mapa bat argitaratu nahi dute orain. Aste Santurako kalean izatea nahi lukete. Etorkizunean ibilbide gehiagoren inguruko informazioa lantzea ez dute baztertzen.

## Etxarri Aranatz

### Udalak soziolinguistika-inkesta egingen du

**Asteleheneetik aurrera hasiko dira herritarrei telefonoz hots egiten**

Etxarri Aranatzeko euskararen egoera zein den jakiteko, soziolinguistika azterketa egingen du udalak. Eneka Maiz Ulaiar alkateak jakinarazi duenez, "asteleheneetik aurrera 325

etxarriarri telefono bidez hots egingen zaie, euskara gaitasuna, euskararen erabilera eta euskara sustatzearikiko iritziei buruz galdetzeko". Inkestak izanendu berritasunik, izan ere, galdeketa hitzarmenaren erabilera buruzko galderak sartu dira, eta baita ere Etxarriko euskararen erabilera buruzkoak ere. Inkesta egiterakoan hiru adin tarte (gazte, heldu, adindua) eta generoa izanen

dituzte kontuan.

Azterketa Maialen Ijorra euskal filologia ikasleak burutuko du praktika moduan, udalaren, UEMAren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean egindako hitzarmen baten bidez. Lanak UEMAK koordinatuko ditu, udalarekin batera. Herriari buruzko azken soziolinguistika datuak 2001ekoak dira, Nafarroako Gobernuak 2011n egin zuen

azken inkesta soziolinguistikoan ez baitzuen herriz herriko daturik eman.

Inkestak ematen dituen datuak aztertzea izanen da bigarren fasea. Maizek aurreratzen duenez, "Etxarri esparruz esparru dagoen euskarazko eskaintza aztertuko da, arloko lanketa eginez. Horrela, normalizazio ikuspegitik egon daitezkeen jarduerak definitu daitezke".

Eraikuntza proiektuak  
Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak  
Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak  
Jarduera txostenak

MARIASUN  
ERDOZIA ULAIAR

ARKITEKTURA

mariasunerdozia@gmail.com 665716857  
www.mariasunerdozia.wordpress.com  
Zugarreta Kalea 36 -1 Esk - ETXARRI ARANATZ

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

HIJOS DE GOIKOETXEA EDARI BANATZAILEA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

# 40 tanatorios

# IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- 948 19 70 70
- @Grupolrache
- Grupolrache
- www.tanatoriosirache.es

**Jose M<sup>a</sup>  
Martínez de Esteban  
Enekoitz Mendiola  
Barandalla**

Gukin betiko yonko zarie.

**Etxarri Aranazko 72ko kintuek**



**Etxarri Aranazko 69ko kintuek**

**Alex Jaka  
Razkin**



Bada urtebete ezin argituz egunak.  
Bada urtebete ezin aurkituz erantzunak.  
Bada urtebete, baina guk ez zaitugu ahaztuko laguna.

**Andra Mari Ikastolako zure gelakideak**



Beti gure bihotzean zaude.

**Zure familia**



**Oroigarriak**  
egiten ditugu



948 564 275  
Foru plaza, 23-1 Altsasu  
gk@gkomunikazioa.eus



## guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

#### HIGIEZINAK

#### ETXEBIZITZAK

#### ALOKATU

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itziar.

#### LANA | NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZAK

Esperientziadun harakina behar da Gipuzkoan. Lan egiteko gogoarekin. Eskatzen da: arretatsua, garbia eta arduratsua izatea. Lanaldi osoa. Bidali CV harategiaa@gmail.com

#### IKASTAROAK

Album ilustratu bat sortzeko helburtuak lantegia. Otsailak 11, larunbata, 10:30 - 13:30 Arbizuko liburutegian. Izen-ematea: Arbizuko liburutegian otsailaren 3ra arte, 948 017 777

edo liburutegi@arbizu.eus

#### Arakilen, Batukada Ikastaroa.

Otsailaren 7an hasi, astearte eta ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, Oskar Estanga irakaslearekin. Ikastaroa lhabarren izanen da. Hilaren 31ra arte eman daiteke izena Arakilgo udaletxean, 948 500 101 eta 634 584 226 telefonoetan. Arakilen erraldatuek 70 € ordaindu behar dituzte, ez daudenek 90 €.

**Arakilen antzerki ikastaroa:** otsailaren 6an hasiko da, eguna eta ordutegia taldeak zehaztuko ditu. Irakaslea Jon Barbarin izanen da. Ikastaroa lhabarren izanen da. Hilaren 31ra arte eman daiteke izena Arakilgo udaletxean, 948 500 101 eta 634 584 226 telefonoetan. Arakilen erraldatuek 70 € ordaindu behar dituzte, ez daudenek 90 €.

#### OPATUTAKOAK /

#### GALDUTAKOAK

#### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasan galdutako gauza hauek ditu:** diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

#### OHARRAK

**Nafarroako haur kantari jaialdiak 2017.** Izen-ematea zabalik dago 6-16 urte bitarteko. Nafarroako haur guztiak har dezakete parte; bakarlari, bikote zein taldetan. Izena emateko amadomingu-guz@tafallaikastola.org. Jaialdiak martxoak 18, Zangozan; 19an, Lakuntzan; 25ean Lesakan eta apirilaren 1ean,

Burlatan.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzaindako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

#### SALDU / EROSI

**Border Collie txakurkumeak saltzen dira,** aita eta ama ardiekin lanean dabil-tza. Tel 646 843 579.

#### OPARITUTAKOAK

**Intxaurrendoa, gaztainondoa eta haritzak oparitzen ditut,** konpostetik jaiotakoak. Tel 656 711 356.

#### JAIOTZAK

- Pello Zamargilea Razkin, ilbeltzaren 4an Arbizun.
- Haizea Lazkoz Navarro, ilbeltzaren 21ean Etxarri Aranatzen.

#### HERIOTZAK

- Raimundo Santano Agundez, ilbeltzaren 18an Altsasan.
- Maria Cruz Goñi Altuna, ilbeltzaren 19an Etxarri Aranatzen.
- Aurelia Peña Lopez, ilbeltzaren 23an Altsasan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## ARETO FUTBOLA

**MAGNA GURPEA, SEIGARRENA:** Jumillari 3 eta 7 irabazi ondoren, lehen mailako ligan 6.a da Imanol Arregiren taldea. Bestalde,

de, Espainiako Kopako final laurdenetan Bartzelona liderrarekin aritza tokatu zaio talde berdeari.



## Imaz txapelkunordea Zangozan

Zangozako lau t'erdiko kimuen finalean Sarasibarren kontra 18 eta 6 galdu zuen Aldabidekoak

Asteburuan Zangozako lau t'erdiko Txapelketako finalak jokatu dira. Kimuen mailan, Aldabideko Imazek Oberenako Sarasibar izan zuen aurkari. Txapela Sarasibarrek jantzi zuen, Imazi 18 eta 6 irabazi eta gero. Bestalde, Zizurko laut'erdian, kimuen mailan, Amanok (Aldabide) 16 eta 3 irabazi zion Albisuri (Alde Zaharra).



## Zilarrezkoa: Martijak irabazi eta Bakaikoak galdu

Bi pilotari sakandarrek ordezkoekin aritu behar izan zuten, Martijak Gorkarekin eta Bakaikoak Zabalarekin

Asteburuan Zilarrezko Binakako 2. jardunaldia jokatu da. Tartean, Errandonea ordezkatu zuen Gorkaketa Julen Martijak 22 eta 14 irabazizieten Peña II.ari eta Ibai Zabalari. Bakaikoa Ladis Galarza ordezkatu zuen Ibai Zabalarekin aritu zen, baina galdu egin zuten, 22 eta 15, Arteaga II.aren eta Erasunen kontra.



Julen Martija.

### DATORRENA

Sailkapena kontuan hartuta, Errandoneak eta Martijak bi puntu dituzte eta sailkapeneko buru dira. Bakaikoa eta Ladis Galarza aldiz, punturik gabek daude, sailkapenean azkenak. Zilarrezko Binakako 3. jardunaldian, Laso eta Iturriagaren kontra ariko dira Bakaikoa eta Ladis Galarza, igandean, Gasteizko Ogeta pilotalekuan, 17:00etan (ETB1). Aldiz, astelehenean, 16:30ean, Tolosan, Errandoneak eta Martijak Arteaga eta Erasun izanen dituzte aurkari.

### Pilota

Gutzira 9 final jokatu ziren XXIX. Sakanako Pilota Txapelketan, Arbizon eta Lakuntzan, eta nagusien mailan Murgiondok eta Arbizuk (Irurtzun) jantzi zituzten txapelak

Larunbatean XXIX. Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Arbizu eta Lakuntzako pilotalekuetan. Aipatu txapelketan, gutzira, Sakanako 6 pilota klubeko 104 pilotarik hartu dute parte, Olaztiko Sutegi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Arbizuko Aldabide, Lakuntza eta Irurtzun klubetakoak.

Gutzira 9 final jokatu ziren, Arbizon eta Lakuntzan, baina sari ematea Lakuntzan izan zen. Lakuntzako San Saastin festak zirenez, ikusleak majo bildu ziren frontoian eta giro oso polita izan zen. Partidak oso lehiatuak izan ziren, ikusgarriak, eta pilotazalek ederki gozatu zuten. Kadeteetan Irurtzun klubeko Berekoetxea eta Berastegi izan ziren txapelkunak, gazteetan Aldabideko Olaetxea eta Petriati eta nagusietan Irurtzun klubeko Murgiondo eta Arbizu. Aitor Zubieta eta Joseba Ezkurdia pilotari profesional sakandarrek banatu zituzten tro-

## Sakanako pilotarien festa



Finalista guztiek antolatzaileekin eta Ezkurdia eta Zubieta pilotariek talde argazkia atera zuten. UTZITAKOIA

feoak. Txapelketako klub antolatzaileetako kideak afaltzera gertatu ziren Lakuntzan eta pilotariek eta ingurukoek festez gozatzeko aukera ere izan zuten.

### Altsasukoeekin elkartasuna

Aipatzekoa da, partidak bukatzerakoan Altsasuko Pilotajauku klubak komunikatu bat irakurri zuela, Altsasuko ferietako liskarren ondoren gertatutako "muntai poliziala" salatu zuena. Pilotajau-

kukoek gogoratu zuten 11 gazte auzipetuak daudela eta horietatik 3 espetxean daudela, horietako batzuk Pilotajaukurekin harre-

man handia dutenak. Bukatzeko, guztiek talde argazkia atera zuten "Altsasukoak Aske Muntai Polizialik Ez" pankarta atzean zutela.

XXIX. Sakanako Pilota Txapelketako finalen emaitzak:

**UMEAK 2:** Ganboa-Eskudero (Lakuntza) 9 / Etxeberria-Saralegi (Irurtzun) 18

**UMEAK 1:** Igoa-Gonzalez (Pilotajauku) 18 / Amiano-Laso (Irurtzun) 10

**KIMUAK 2:** Amado-Berute (Aldabide) 18 / Gorospe-Larrañaga (Sutegi) 12

**KIMUAK 1:** Lakuntza-Garmendia (Aldabide) 18 / Martiarena-Markina (Irurtzun) 5

**HAURRAK 2:** Peral-Agirretxe (Pilotajauku) 11 / San Roman-Ulialar (Pilotajauku) 18

**HAURRAK 1:** Imaz (Aldabide) 18 / Gorrotxategi (Aldabide) 8

**KADETEAK:** Araña-Araña (Gure Pilota) 8 / Berekoetxea-Berastegi (Irurtzun) 18

**GAZTEAK:** Otxoa-Goikoetxea (Aldabide) 4 / Olaetxea-Petriati (Aldabide) 22

**NAGUSIAK:** Ezkurdia-M.Eulate (Irurtzun) 19 / Murgiondo-Arbizu (Irurtzun) 22



## Berrito elkarren kontra

Bosgarren puntua lortzeko gogor borrokatuko dute Ezkurdia-Merino II.ak eta Elezkano II.a-Zabaletak

Binakako Txapelketako 9. jardunaldiko partida interesgarriena bat Labriten jokatu da, larunbatean, 17:45ean (ETB1). Joseba Ezkurdiak eta David Merinok lesiotik osatu berri den Danel Elezkano eta Jose Javier Zabaleta izanen dituzte aurkari. Asteazkenean egin zuten pilota aukeraketa, ikusmina handia zela.


### Txapelketa, zabal-zabalik

Izan ere, Binakako Pilota Txapelketak oraindik estu-estu jarraitzen du. Irribarriak eta Rezustak 7 puntu dituzte eta lider nagusiak dira, baina gainontzeko bikoien artean ez dago aparteko alderik. 4 puntu

dituzten 4 bikote daude: Elezkano II.a-Zabaleta, Ezkurdia-Merino II.a, Artola-Albisu eta Altuna II.a-Barriola, eta 3 puntu dituzten 3 bikote: Bengoetxea VI.a-Larunbe, Olazol II.a-Untoria eta Urrutikoetxea-Imaz.

### Ezkurdia vs Zabaleta

Hortaz, hil ala bizikoa da bihar sakandarrek elkarren kontra izango duten lehia. "Irabazten duen bikotea sailkapenean ongi kokatuko da. Gu izaten saiatuko gara. Borrokan sartuta egon nahi dugu, eta horretarako larunbatean irabazi beharra dago" nabarmendu zuten Ezkurdiak. Arbizuarrak aipatu zuten Elezkano arerio arriskutsua dela, ezkerrekin ongi defendatzen dena, baina beneta-



Zabaleta, Elezkano, Ezkurdia eta Merino, asteazkeneko aukeraketan. UTZITAKOIA

ko arerioa Jose Javier Zabaleta dela. "Bikote horretan Joserena da batuta. Josek dominatzen badu, aurrelariak errazago dute" aitortu zuen. "Zabaleta partidak dominatzen ari da. Eurak desoroso jartzen saiatu beharko gara, gusturajokatuek dezaten" ondorioztatu zuten Merinok.

Ezkurdia eta Merino Urrutikoetxearen eta Imazen kontra galtze-

tik datoz (22 eta 20), bote oso gutxi zuten pilota baten polemika tarteko eta arbitroen erabaki ez oso zuzenak tartean. Materiala zeresana ematen ari da txapelketan. Asteazkenean Ezkurdiak eta Merinok aukeratutako pilotek bote gehiago zuten eta Elezkano eta Zabaletarenak, aldiz, gutxiago. Ea zer nolako ikuskizuna eskaintzen duten bihar Labriten.

**Mendi lasterketak**



**Aritz Munarriz zazpigarrena V. Garingo Mendi Lasterketan**

V. Garingo Mendi Lasterketa (11 km)

1.Joxe Amunarriz (Hondarribia):	52:01
7.Aritz Munarriz (Etx):	56:03
21.Joxeja Maiza (Etx):	58:55
44.Alberto Razkin (Etx):	1:02:04
195.Erkuden San Martin (Etx):	1:17:33
205.Mikel San Martin (Etx):	1:18:20

2017ko mendi lasterketen denboraldia abian da, pixkanaka. Esaterako, igandean V. Garingo Mendi Lasterketa Herrikoia (11 km) jokatu zen Beasainen. 270 korrikalarik osatu zuten proba eta Hondarribiko Joxe Amunarriz izan zen azkarrena (52:01). 5 korrikalari etxarriarrek hartu zuten parte eta Aritz Munarriz zazpigarrena iritsi zen helmugara, irabazlearengatik 4 minutu pasara (56:03). Emakumezkoetan Maite Etxezarreta azpeitiarra gailendu zen (1:04:22), helmugara 67. postuan iritsi eta gero. Erkuden San Martin izan zen korrikalari sakanadar bakarra. Etxarriarra 205.a sailkatu zen (1:17:33).

**Futbola**

**Imanol Irurtzun, arbitroen Talentu Programara joateko aukeratutako artean**

Nafarroako Futbol Federazioak Talentuen Programan azpeitiarra Nafarroa ordezkatzeko duten sei arbitroak aukeratu ditu. Arbitro hauek 3. mailan arbitratzen dute eta aipatu proba egin ondoren aukeratuak badira, hurrengo urtean 2. B mailan arbitratuko dute. Proba egingo dutenen artean Imanol Irurtzun dago, 28 urteko ihabartarra. Aurreko urtean ere Talentuen Programa Nazionalan parte hartu zuen.

**100 ARBITROTIK 20 AUKE-RATUKO DITUZTE**

100 arbitro baino gehiago bilduko dira Talentuen Programan. Jokoa- ren Araudia, Espainiako Futbol Federazioak Diziiplina Kodea eta 4. Zenbakiko Zirkularra gaiei buruzko azterketak izanen dituzte, akten erredakzioko proba eta ingelese eta psikologia azterketak barne. Proba fisikoen artean abiadura, erresistentzia eta bizkortasunari buruzkoak daude. Horrela, hurrengo denboraldian 2. B mailan arbitratuko duten 20 arbitroak aukeratu dituzte.

**Aizkora**

**Aizkolari izan nahi duzu? Zatoz gurekin!**

**2017ko Sakanako Aizkora Eskolarako izena ematea zabalik dago Mank-en**

Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Sakanako Aizkora Eskola jarri du martxan. Helburua, aizkoran hasi edo trebatu nahi dutenei kirol honetan murgiltzeko baliabideak ematea da. Izan ere, sarritan herri kirolatan aritzea nahiko gure baina bertan aritzeko materialak eta baliabideak ez ditugu eskura. Gabezi horiei irtenbidea emateko sortu zuen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, bere garaian, Sakanako Aizkora Eskola. Horrela, aizkora gustuko dutenei aizkoran hasteko beharrezkoak diren baliabideak –aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak eta beste– ematen zaizkie. Hasieratik arrakasta handia izan du eta urtero bertan aritzeko tokiak betetzen dira.



Sakana eskolako aizkolariak lanean.

Sakanako Aizkora Eskolarekin, aizkora bulkatzeaz gain, Sakanako aizkolari harrobi on bat osatu nahi da. Asko dira bertatik atera diren aizkolariak, egun txapelketetan aritzen direnak.

**Erdoziatarak**

2017ko Sakanako Aizkora Eskola martxoan hasiko da. 10-25 urte arteko neska-mutikoek eman ahal dute izena, eta tokia badago, helduagoak ere aritu daitezke. Izena ematen dutenak asteazkenetan –19:30etik 20:30era– eta larunbatean –12:00etatik 13:00etara– murgilduko dira aizkoran, Juanito Erdozia, Juanjo Erdozia eta Migel Angel Erdozia aizkolarien esanetara.

**Izena emateko**

Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakanamank.eus), otsailaren 20a baino lehen. Prezioa: 55 euro.

**Irristaketa**

**Irristaketa denboraldia abian**

**Olaztik Nafarroako indoor proba bat hartuko du otsailaren 18an**

Asteburu honetan hasiko da 2017ko Nafarroako irristaketa denboraldia. Sakana Irristaketa Taldeak 25 irristalarirekin hartuko du parte, horietatik 14 emakumezkoak.

Aurreko urtean 34 irristalari lehiatu ziren Sakana Irristaketa Taldearekin. Bi irristatzailek hartu zuten parte Nafarroako eta Espainiako Txapelketetan, eta bi titulu lortu zituzten, Nafarroako Txapelketako txapeldunordetza bat eta Espainiako Txapelketako hirugarren postu bat. Bestalde, Nafarroako Ligan, adin txikikotan, Sakana taldeko 32 irristalari aritu ziren eta emaitzak politak izan ziren: gizonen mini mailan eta emakumezkoen benjamin mailan txapeldunak izan ziren Sakana taldekoak eta gainontzeko kategoriatan maila bikaina eman zuten.



Sakana Irristaketa Taldea 2017. UTZITAKOIA

**Pista**

Aurten, Sakana taldeko irristalari batzuek Iruñeko taldeetara jo dute, irristaketan aritzeko instalazio hobeak dituztelako eta kirol mailan handitu nahi dutelako. “2017rako gure helburuen artean Sakanan irristaketarako araudizko pista bat sortzea da, hemen baldintza egokietan entrenatu ahal izateko. Eta, bestetik, Sakanan maila altuko kirol probak antolatu nahi ditugu. Gure haurrak Iru-

ñeko beste talde batera joan behar izate hori ekidin nahi dugu, gure klubean geratu daitezen” azaldu dute taldetik.

**Indoor proba Olaztin**

Otsailaren 18an Nafarroako Irristaketa Indoor Txapelketako proba bat hartuko du Olaztik Erburua kiroldegia eta irailaren 16an, Altsasun, Sakana mailan egingo den lehendabiziko irristaketa trofeo antolatuko dute.

**Txirindularitza**

**Patxi Mundiñano mekanikaria denboraldiari ekiteko prest**

**Euskadi Murias taldeko mekanikaria da etxarriarra. Astelehenean egin zuten denboraldiko aurkezpena**

Astelehenean Euskadi Basque Country-Murias Taldearen aurkezpena egin zuten Bilboko Alhondigako Azkuna Zentroan. Kontinental mailako taldea da Euskadi Murias, baina 2018an saltoa ematea eta profesional kontinental mailako taldea izatea da erronka.

Jon Odriozola kirol zuzendariaren esanetara jarraituko dute txi-

rrindulariek. Aurreko urteko ia bloke gehienak segitzen du –Aritz Bagües, Ander Barrenetxea, Mikel Bizkarra, Garikoitz Bravo, Imanol Estevez, Adrián González, Aitor González, Mikel Iturria, Eneko Lizarralde, Pello Olaberria, Beñat Txoperena eta Gotzon Udondo–, eta profesionalek saltoa eman duten Alex Aranburu eta Jon Ander Insaustiren tokia betetzera Julen Irizar eta Oscar Rodríguez sartu dira. Helburua emaitza ahalik eta onenak izatea da, garaie-

nak lortzea. “Euskadi izena lehen mailako probetara eman nahi dugun euskal selekzioa izan nahi dugu” adierazi zuen Odriozolaurkezpenean.



Patxi Mundiñano.

Taldearen staffean Patxi Mundiñano dago. Etxarriarra taldeko mekanikarietako bat da. Hainbat denboraldi daramatza taldean eta 2017 denboraldirako ere prest dago Mundiñano.

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA**

**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

16. JARDUNALDIA

**ARROTXAPEA 1 - LAGUN ARTEA 1**  
**ARTAJONÉS 0 - ETXARRI ARANATZ 3**  
 Arrotxapean jokatuako partidaren lehen zatian Lagun Arteak dominatu zuen eta joko oso bizia ezarri zuten lakuntzarrek, baina Arrotxapea izan zen aurreratu zena. Nolanahi ere, Lagun Arteak ez zuen etsi eta bi minutu Davilak berdindu egin zuen. Markagailua ez zen mugitu eta puntu berdinketarekin despeditu zen lehia. Artaxoan, bestalde, garaipen ederra lortu zuen Etxarri Aranatzek. Artaxoakoek baina ugari zituzten eta nabaritu egin zen. Berehala aurreratu zuen Etxarri, Garaten golarekin. 2. zatian Garatek bigarren gola sartu zuen eta, Artajonésekoek ate propioan gola sartu eta gero, azkenean 0 eta 3 gailendu zen Etxarri.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	37 p
3. Lagun Artea	27 p
6. Etxarri Aranatz	24 p

Asteburuko jardunaldia

**LAGUN ARTEA - ARTAJONÉS**  
 (Igandean, 16:15ean, Lakuntzan)  
**ETXARRI ARANATZ - DONEZTEBE**  
 (Larunbatean, 16:00etan, Etxarri)

**ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa**

14. JARDUNALDIA

**GAZTE BERRIAK 1 - ALTSASU 2**  
 Gazte Berriak taldearen defentsa akats baten ondoren sartu zuen Javierrek Altsasuren lehen gola. Gazte Berriak taldeak berdintzea lortu zuen. Bigarren zatian Altsasu hobe aritu zen, jokaldi ederrak sortzen. Jokinek, penaltiz, Altsasuren garaipen gola sartu zuen eta 3 puntuekin etorri ziren altsasuarrak.

Sailkapena >>

1. San Jorge	33 p
6. Altsasu	17 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASU - BETI KOZKOR**  
 (Igandean, 16:00etan, Dantzalekun)

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**

Sailkapena >>

1. Osasuna	34 p
10. Altsasu	12 p

Asteburuko jardunaldia

**CASTEJÓN - ALTSASU**  
 (Larunbatean, 16:00etan, Castejonen)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**

15. JARDUNALDIA

**IZALSA 2 - ZALDUA 2**

Sailkapena >>

1. Unziti	37 p
4. Zaldua	28 p

Asteburuko jardunaldia

**ZALDUA - BIDEZARRA** (Lekunberrin)

**Futbola**

**Sakanako Futbol Topaketak: benjaminen txanda**

**Benjaminen mailako 5. jardunaldia jokatu da igandean Lakuntzan**

Sakanako Futbol Topaketan barruan, igandean benjaminen mailako 5. jardunaldia hartuko du Lakuntzak. Kimuen mailako txapelketari dagokionez, ilbeltzaren 22an 8. jardunaldia jokatu zuten eta otsailaren 19ra arte atsedenaldia izango dute.

**Sakanako Futbol Topaketak: Benjaminen 5. jardunaldia**

**Igandean Lakuntzan**  
**10:00etan: Mediolanum - Seguros Sayas**  
**10:50ean: Urdiain - Etxarri**  
**11:40ean: Sutegi - Lagun Arte 1**  
**12:30ean: Txartel - Lagun Arte 1**

## Atletismoa

## Altsasuko Krosserako izena ematea zabalik



Otsailaren 19an jokatu da, Dantzalekun, bi distantziatan (4 km eta 8 km)

Dantzaleku Sakana taldeak, Sakana Triatloi taldearekin XXII. Altsasuko Krossa antolatu du otsailaren 19rako, 12:00etan. Bertan, federatuek eta federatu gabekoez har dezakete parte. Federatutakoek probaren egunean bertan eman ahaliko dute izena baina federatu gabekoez aurretik eman beharko dute izena [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean, antolakuntzak aseguruak eta beste lotzeko. Probak *Ettxera, Altsasukoak Aske* ekimenarekin bat egin du eta Altsasuko auzipe-tuei eta atxilotutakoei babeseta eta laguntza ematea du helburu. Korrikalari ahalik eta gehienak erakartzeko, bi distantzien artean aukeratu ahal izango da: 4 km edo 8 km.

[WWW.KIROLPROBAK.COM](http://WWW.KIROLPROBAK.COM)

Altsasuko Krosserako izena emateko. Prezioa: 10 euro.

## BEÑAT KATARAIN MUGERZA NAZIOARTEKO KROSEAN

Igandean Juan Mugerza Nazioarteko Krossa jokatu zen Elgoibarren, puntako korrikalariak bildu zituen. Gizonetzkoetan (10,7 km) Joshua Cheptegei ugandarra gailendu zen (31:50), Barheineko Aweke Ayalew korrikalariari 26 segundo aterata. Beñat Katarain lakuntzara 60.a iritsi zen helmugara (39:02). Emakumezkoetan (7,6 km) Senbere Teferik irabazi zuen (25:10).



## Mendia

## Dantzaleku Sakanarekin Zadorraren iturburura

Igandean, 8:30ean, Altsasuko autobus geltokian

Dantzaleku Sakana klubak mendira irteera antolatu du iganderako. Muniaingo hariztitik aterata, Zadorra iturburura eta Okarizeko Peña Rojara (1.067 m) txangoa egitea da asmoa, atzera ere Muniainera jaisteko. 12,3 km inguruko buelta da, zailtasun ertainekoa. Hitzorduagoizko 8:30ean jarri dute, Altsasuko autobus geltokian. Han autoak antolatuko dituzte, Muniainera joateko. Norbaitek informazio gehiago nahi badu, ondoko telefonotara hots egin dezake: 636 441 796 (Zapa) edo 659 561 873 (Polentzi).

## Tenisa

## Xabier Bengoetxea, txapelkun handia

31. Haur Mailako Zirkuituko Intersport Irabia-Dunlop Torneoan irabazi du ziordiarra. Tenis federatutako torneo bat irabazten duen lehen sakandarra da

Rubor-Altsasu Tenis Klubeko Xabier Bengoetxea Ijurriziordiarrek pozik egoteko arrazoi asko dauzka. Bengoetxeak 31. Haur Mailako Zirkuituko Intersport Irabia-Dunlop torneoan hartu du parte hilabete honetan. Txapelketa Iruñeko Tenis Klubeko instalazioetan jokatu da eta sekulako maila eman du.

Lehen asteburuko aurretiko fasean, ilbeltzaren 14an, Xabierrek garaipen sendoa lortu zuen Lucas Isturizen kontra (6 eta 2 eta 6 eta 2), bikain jokatu eta gero. Hurrengo egunean arerio gogorra goa izan zuen, Alvaro San Migel. Lehen setean 5 eta 7 galdu zuen ziordiarra, baina ez zuen burua galdu eta bigarren setean gailentzea lortu zuen, 6 eta 2. Hirugarren seteko super tie-breakean burua argi izaten eta heldutasunez jokatzen jakin zuen Xabier Bengoetxeak eta tie-breaka eta partida irabaztea lortu zuen, bukaerako fase-rako sailkatuz.

Bukaerako fasean Hugo Ancin izan zuen aurkari, txapelketako zerrenda-burua. Eta sorpresa emateko gai izan zen Xabier Bengoetxea. Sakeak bikain aterata, akats bikoitzik egin gabe, bere jokoa egiten hasi zen; arerioa deseroso jartzea lortu zuen eta ikusleen

## Cantero: "meritu handia du"



"Xabierrek lortu duena handia da. Meritu handia du. Astero Tenis Rubor Klubeko klaseek irauten duten bi ordutan soilik entrenatzen du. Hemen, Sakana, ez dago tenis instalaziorik bakoitzak bere kabuz entrenatu nahi duenean bertara joateko. Iruñeko tenis jokalariek, aldiz, kristoren instalazioak dituzte: tenis klubean, Amaian, San Juanen... Beraz, tenisiariak ez daude maila berean, Iruñekoek askoz ere gehiago entrenatzen dutelako, gu baino mila ordu gehiago. Horregatik diot, berriro, Xabierrek lortu duena handia dela. Zorionak Xabier, horrela jarraitu, tenisarekin gozaten eta, ahal denean irabazten" adierazi du Tenis Rubor Altsasu elkarte ko koordinatzaile Ricardo Canterok.

txaloak sortu zituen jokaldiak borobildu zituen, kalitatezko jendakaren bat eta beste. Ziordiarren erretoak ere bikainak izan ziren eta, azkenean, garaipena lortu zuen, ordu eta erdi iraun zuen partidari (7 eta 5, 3 eta 6 eta 10 eta 6).

## Lehen sakandarra

Final handia igandean jokatu zuen Xabier Bengoetxea Ijurrak, Adrian Arizkurenen kontra, torneoko bigarren zerrenda-burua. Lehendabiziko seta galdu zuen ziordiarra, bere lehen finala izanik, akaso

urduritasun puntu horregatik. Baina bigarren setean nerbioak kontrolatzen jakin zuen Bengoetxeak, bigarren seta, partida eta finala irabaziz. Tenis federatutako final bat irabazten duen lehen sakandarra dugu, beraz, Bengoetxea.

Tenis Rubor Altsasu Tenis Elkarte batetik, tenis eskola dago, 7 urtetik 16ra urtera bitarteko neska-mutikoez osatzen dutena, eta, bestetik, hobekuntza taldea dago, helduena. Klaseak Altsasu Institutuko kirol-pista estalian ematen dituzte.

## Atletismoa

## Emakumeen Dantzaleku-Sakana

Dantzaleku-Sakana Atletismo Klubeko zuzendaritza berri dute. Lehenengoz 5 emakumek eta 5 gizonen gidatuko dute taldea eta zuzendaritza postu nagusiak emakumeen esku egongo dira. Marijo Arza da presidente berria.

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubean aldaketa nabarmena eman da zuzendaritzan. Hemendik aurrera 5 emakumek eta 5 gizonen kok osatuko dute klubeko zuzendaritza eta lau postu nagusiak emakumezkoen esku egongo dira. Marijo Arza da presidente berria, Jone Pelaez presidenteordea, Leire Palacios idazkaria eta Ginesa Lopez diruzaina. Bokal lanetan Maite Zornoza, Juan Antonio Palacios, Aingeru Azazeta, Eusebio Vinagre, Mikel Goikoetxea eta Peio Bergara ariko dira.

Klubeko orain arteko presidentea Juantxo Azurmendi zen. Taldean ahal duen laguntza guztia ematen jarraituko du, baina ardurara nagusia utzi nahi zuen. "Aurreko urtean emakumezkoen talde txo bat sortu zen Dantzalekun, astebururo mendira korrika joateko hitzorduak jartzen dituena. Beraiekin korrika egitera joaten gara eta beraien laguntzarekin ere hilean behin mendira txango bat egitera joateko ideia sortu zen.



Ginesa Lopez, Jone Pelaez, Leire Palacios eta Marijo Arza. UTZITAKOIA

Juantxok eta beste zuzendaritza karguak utziko zituztenez, proposatu genien ea zergatik ez ziren animatzen zuzendaritzara sartzen, parekidetasun irizpideak betetzeko. Eta azkenean proposatu genien eurek postu nagusiak hartzea. Emakumezkoen kirola ulertzeko beste modu bat dute, ideia berriak ekarriko dituzte eta oso pozik gaudela Dantzaleku Sakanako ardura hartuko dutelako" adierazi digu Dantzalekuko Peio Bergarak.

Bergarak gaineratu duenez, juntako 10 kideek elkarrekin lan egingo dute, elkarrekin erabakiak hartuko dituzte eta lana guztien artean banatuko dute, baina postu nagusi guztiak emakumezkoen esku egotea "oso garrantzitsutzat" jo du, "emakumeen parte hartzea ezinbestekoa delako. Ez dakit pos-

tu garrantzitsu guztiak emakumeen esku dituen talde askorik egongo ote den" nabarmendu du.

**BIKAIN GARAJEA, S.A.L.**  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea**

## Non erabili

## IKER KIROLAK

## ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilitezko.

## URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

## ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsultan.

## BASOMUTUR

## ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

## BILTOKI TABERNA

## ALTSASU

Egunek menuan, kafea doan. Karta menuan, kopa doan.

## GERTU SAKANA

## ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketan egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

## AINHOA ESTETIKA

## IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

## ASENSIO

## ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

## IL PADRINO

## ALTSASU

Egunek menuan txupittoa doan.

## VALCARCE

## OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

[www.guaixe.eus-en](http://www.guaixe.eus-en)  
zerrenda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
948 564 275

**KUMBIATON INSURGENTEA:** Tremenda Jauria talde madrildarra Altsasuko gazte-txean izanen da gaur, 23:00etan. Zeresana ematen ari den laukotearen proposame-

nak kumbia, punka, reggaetia edo rapa uztartzen ditu, hitz zorrotz eta azidoekin. *Cuentas pendientes* lana aurkeztuko dute.

## Natur parkea argazki modelo duen argazki lehiaketa

**A**ltsasuko Mendigoizaleak taldekoek argi dute: "Urbasa eta Andia naturaren mirari bat dira. Lurreko orografia, bere fauna, bere flora... Lurralde bat osatzen dute, zeinen txoko ederrek, euren berezitasunagatik, beti ustekabeaz uzten gaituz-

neguan ateratako argazkiak aurkeztu behar dituzte lehiaketara, zehazki, urteko aurreneko egunetik otsailaren 28ra arteko argazkiak onartuko dira. Argazkiak martxoaren 6ra arte aurkeztu daitezke [Altsasukoargazkiak@gmail.com](mailto:Altsasukoargazkiak@gmail.com) e-postaren bidez.



te". Halakoa ondoan izanda Urbasa-Andian argazkilaritzaz gozatzeko lehiaketa antolatu dute. Hirugarren edizioa du eta lehiaketaren berezitasunetako bat da negu gorrian jokatzeko dela.

Hala, parte hartzeraz animatzen diren argazkilariek natur parkea bere "fase gordinenean" opatuko dute. Eta ingurune horretan argazki kamerarekin txokoak, natura, animaliak eta beste hartu beharko dituzte. Horretaz aparte, lehiaketan Urbasa-Andia ezagutu eta paseo horiei eduki gehiago emateko aitzakia ezin hobea da lehiaketa. Aldi berean, egungo teknologien bidez (mapak, gps-ak, iparrorratzak...) toki berezietan gozatzeko proposamena ere bada lehiaketa.

### Oinarriak

Argazki lehiaketan parte hartzen dutenek alde aurretik izena eman beharko dute. Horretarako, [www.altsasukomendigoizaleak.com](http://www.altsasukomendigoizaleak.com) web guneko izen ematea atala erabili dezakete. Natur parkean

Parte-hartzaile bakoitzak 8 argazki aurkeztu beharko ditu lehiaketara. Haietako batean egilea agertu beharko da eta beste bi koordenatu jakinetan egin behar dira: Urbasan, **N42° 51' 8,1'' W2° 11' 33,5''** eta Andian **N42° 54' 54,83'' W1° 56' 12,39''**. Bakoitzak izenburua eta dagokion toponimoa izan beharko ditu. Irudien artxiboak .jpg estentsioa izan beharko dute.

### Sariak

Aurreneko hiru sailkatuek sari gisa landa-etxe banatan gau bateko egonaldia izanen du: Nemesio landa etxean (Iturmendin), San Pedroko bidean (Altsasu) eta Imaz etxean (Olatzagutia). Aurkeztutako lanen emanaldiamartxoaren 14an, asteartean, 19:30ean egingen da, lortia kultur gunean. Ondoren, taldearen egoitzan auzatea izanen da.

## Euskal Herriko inauteriak argazkitan ikusgai

**Asteazkenetik 15era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean**

**J**avier Belasko Portugaleteko argazkilaritari gaztetan sortu zitzaion irudiak hartzeko zaletasuna. Euskal Herriko kulturarekiko interesak lurraldeko inauterien argazki erakusketa egitera eramane du: *Euskal Herriko inauteriak tantaka*. Gure geografian barna diren ihote ospakizunen



jarraipenaren fruitu dira erakusketako argazkiak, bilduma bizi, denboraren joanean irudi berriak gehitzen dituen. Magiaz eta kolorez beteriko irudi sorta ikusgai izanen da lortia kultur gunean.

## Eroetxeko iraultzaren antzezpena



**Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean Soy la revolución antzezlanaren taularatuko du Aimara antzerki taldeak. Sarrerako dirua Altsasukoak Aske eta Mila Kolore taldeendako izanen da**

**F**rantziako iraultzaren ondorena, 1808ko garilaren 13a. Sadeko markesa psikiatriko batean dute, Charentonen. Handagoela gaixoei iraultza garaian, 1793an, kokatutako antzezlan bat prestatzea erabakitzen du Sadek. Antzezlanaren iraultzako lider Jean Paul Maraten hilketarekin bukatzen da. Psikiatrikoko gaixoak dira aktoreak, eta obra jokatzeko ari direla zaindaria ordena jartzera

sartuko dira. Osasun-etxeko zuzendariak, emaztearekin eta alabarekin batera, antzezlanaren gainbegiratu du. Napoleon I.aren zalea, antzezlanak bere ideia abertzaleekin bat egingen duela uste du. Baina bestelakoa da gaixoen asmoa. Iraultza lidergoaz, sexualitateaz eta indarkeriaz hausnarketa proposatzen duen obra da.

### Antzerkia antzerki barruan

Horixe da Aimara antzerki taldeak eskainiko duena *Soy la revolución* antzezlanarekin. Peter Weisen *Marat-Sade* antzezlanarekin oinarritutako muntaia egin du Amurrioko talde amateurak.

Aimara Teatro 1996an sortu zen, Amurrioko Aurreraka emakume taldearen baitan; hiru urte geroago harengandik bereizi zen. Javier Liñera zuzendariaren gidaritzapean egindako antzezlanagatik Aimara antzerki taldeak muntaia onenaren saria lortu zuen Rivas Vaciamadrid Antzerki Amateur XIX. Jaialdian 2014an. Gainera, Raul Garciak aktore onenaren izendapena jaso zuen.

### Elkartasun zikloa

Tarima Beltza antzerki taldeak joan den urtean beste erkidegoetako antzerki taldeekin trukeak egiten hasi zen. Castro Urdialesen, Abadiñon eta Amurrioren antzeztu dute. Hangoak Altsasura etorri diren bakoitzean sarreran lortutako dirua beharra duen erakunderen bati ematea erabaki du Tarima Beltzak. Elkartasun zikloa 2016an abiatu zuten eta lortutako dirua Josefina Arregi klinikarendako izan zen. Biharko emanalditik lortzen dena Altsasukoak Aske eta Mila Kolore taldeendako izanen da. Aurkezpenean azken talde horretako ordezkariak izan ziren. +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## bazterretik

### Izaskun Beunza Azazeta

### BAU Munich, arkitektura eta eraikuntza-materialen azoka

**BAU IZENAZ EZAGUTZEN DA, MUNICHEN, URTARRILEAN ETA BI URTEK BEHIN OSPATZEN DEN ARKITEKTURA ETA ERAIKUNTZA-MATERIALEN AZOKA.**

Europako eraikuntzaren industriaren erreferentzia da, sektorean dagoen garrantzitsua. Nazioarte mailan eraikuntza enpresa nagusiek azken bi urteetako produktu, material eta sistema berriak aurkeztu dituzte bertan. Aurtengo edizioa urtarrilaren 14tik 19ra bitartean izan da eta 23.500 bisitari inguru izan ditu. Azken bi urteetako eraikuntza munduko nobedadeak ezagutzeko gain, egungo arkitekturaren bilakaeran nagusi diren gaien inguruko ekitaldi ugari parte hartzeko aukera izan zuten bisitariak.

Nazioarteko erakusketariak komertzioaren itxura eta diseinua eraberritzeko material berri, etxebizitza proiektuak garatzeko teknologia eta sistema iraultzaile, edota

industri eraikinen barne diseinurako punta-puntako teknikekin, 18.000 metro koadro baino gehiagobete dituzte. Europako eraikuntzaren industriaren teknologia aurreratuenaren egoera eta joera erakusten da, eta hurrengo bi urteetarako sektorearen garapenerako ardatzak finkatzen dira. Aurtengo edizioak arreta berezia jarri du jasagarritasunaren inguruan egindako azken aurrerapenetan, eraginkortasun energetikoa eta diseinu aukera berri eta berritzaileen beharra nabarmenduz.

Erakusketa eremuen artean inte-

res gehiena piztu duena BAU ITeremua izan da, non eraikinen diseinurako software berritzaileen aurkezpena egin den. Orain arte mundu mailan egindako eraikuntza software berrikusterik handiena izan da. Erakusketariak etorkizuneko eraikin modelatuen azken joera eskaini dute. Programa berri hauekin modelatzeaz gainera, eraikinen planifikazioa, fakturazioa, gestioa eta kontrola egin ahal izango da.

BAU-a bi urtez behin antolatzen da, eta beraz ziur aski 2019. urteko urtarrilean gauzatuko da Munich hurrengo edizioa.



## Erabakien kausaz

Igandean, 19:30ean, Irurtzungo kultur etxean

Eskarmentua pilotuta, bakar-kako lana egiteko gogoz zebilen Miren Tirapu aktorea. Hala, Beheko Larraine antzerki taldea eta *Atte hil aurretik* antzezlanaren sortu ditu. “Komediak eta tra-



gediak markatutako bideak segituz, sekretuen munduan murgilduko gara”. Obraren egilea da aktore bakarra, Tirapu, hiru pertsonaia jokatuko dituena: Ane, Maxus amona (gerrakoan alar-gundua eta berriz ezkondu ez zena) eta Tomas herritarra. Nafarroako herri bateko baserri batean, Erremosenan, dago kokatuta antzezlanaren harategian zehazki.

Maxusek iloba Aneri gauero ipuin bera kontatzen zion. Dagoeneko bi hilabete dira amona hil dela. Anek baserria eta harategia oinordetzan hartuak ditu. Han lanean ari dela, amonak utzitako hutsuneak eta ihauteriek sakonki zirikatuko dute. Anek amonaren ipuinaren benetako esanahia eta amonaren egiazko bizitza ezagutzen joanen da. Sekretuen mundu horretan Aneren eta Maxusen arteko zubia Tomas izanen da, herrikogizontxoak. Maxusen mitoa hiltzen doan neurrian, Ane kolokan jarriko du iraganak.

Iragana eta oraina ageri dira antzezlanean, pertsonaietan. Baina objektuen erabilpen eta argi jokoaren bitartez, espazio eta garai desberdinetan bidaiatuko du ikusleak. Tirapu hiru belaunalditako pertsonaien azalean jarriko da, eta momentu, egoera eta testuinguru zehatz batean hartzen diren erabakiek kausa ditzaketelako eraginaren inguruan ariko da. Jaso edo ekidin daitekeen ondarea. Tirapuk dioenez, “etengabe erabakiak hartzeri behartuta gaude, etenik gabe. Zer puntutaraino gaude baldintzatu hartutako erabakietan? Zer punturaino gara gure erabakien jabe?”. Deliberamenduaren gaiari oinordetza gehitu dio. Guztia familia baten sekretuari tiraka. Tirapuk obra sortzeko bi sorkuntza egonaldi Irurtzungen egin zituen. +www.guaixe.eus

## “Kritikak ongi etorriak dira, erakustokian zauden seinale baitira”

Fran Urias

Hesianeko gitarrajole eta abeslaria

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Dagoeneko hamar urte daramatza ekinean Hesian taldeak. Hainbat sakandarrek 2006ko udan sortu zuten, eta geroztik ibilbide biziki oparoa izan du. Urteurrena ospatzeko, berriki taldearen izen bereko diskoa plazaratu dute; beren zazpigarren diskoa, hain zuzen. Doinu lasai eta mugituak uz-tartuz, lan borobila atera zaie. Hala uste du, bederen, Fran Uriasek, Hesianeko kide sakandarrak.

**Hamarkada bat daramazue eszena-tokietan. Hasieran posible ikusten zenuten horren bide luzea egitea?**

Hasieran ez duzu horretan gehiegi pentsatzen. Hainbeste gauza dituzu buruan, etorkizunari ez diozula buelta handirik ematen. Denbora luzez iraungo gurela agian pentsa nezakeen. Finean, irautea ez da hain zaila. 30 urte pasa ditza-kezu lokal batean sartuta. Baina ziur nago ez gurela esperoko egun gauden egoeran egotea. Zazpi disko atera ditugu jada, publiko zabal bat daukagu... Egoera oso onean gaude.

**Urteurrenarekin batera, disko berria plazaratu duzue, Hesian izenekoa. Nola deskribatuko zenuke?**

Nahiko disko kuriozosa da. Alde batetik, orain arte egin duguna baino poperoagoa da. Hori batez ere nik idatzitako abestietan nabaritzen da. Abesti nahiko pertsonalak eta lasaiak dira. Baina Zuriñerenak apur bat gogorrak dira: gitarra indartsuagoak dituzte, tronpeta-soinu gutxiago dabilte... Hortaz, nahasketa antzeko bat egin dugu, eta pozik gaude emaitzarekin. Abesti politikak dira, oso entzungarriak. Disko borobila atera zaigu.

**Normalean, lehen diskoei jartzen zaie taldearen izena. Zuek, ordea, zazpigarrenarekin egin duzue hori. Zer dela eta?**

Disko hau berezia izatea nahi genuen, eta horri buelta asko eman genizkion. Izenburuak ere berezia izan behar zuen. Orduan, ikusi genuen berezitasun hori emateko modu bat taldearen beraren izena jartzea izan zitekeela. Abesti baten izena jarrita, diskoaren zentzua aldatuko zatekeen. Izenburua urteurrenari, eta taldearen ibilbideari lotuta egotea nahi genuen.

**Disko hau aurrekoak baino sentimentalagoa dela aipatu duzu. Hori taldekideen egoeraren isla al da?**

Bai, letrekin beti gertatzen da hori. Egia da disko hau aurrekoak baino askoz ere intimoagoa dela. Maitasuna asko ukitzen du. Gai



EKAITZ ZILARMENDI

politiko edo sozialetan ez gara hainbeste sartu. Eta alor musikari dagokionez, uste dut disko honetan sekula egin gabeko gauzak egitera ausartu garela. Adibidez, abesti batzuetan biolinak erabili ditugu. Hori bai ez gurela sinistuko duela hamar urte.

**Horretaz aparte, bi abesti enblematiko berreskuratu dituzue, Behar zaitut eta Ezin ahaztu.**

Bai. Uste dut bi abesti hauek mugarririk izan direla gure ibilbidean, bakoitza bere momentuan. *Behar zaitut* talde honen lehen abesti arrakastatsua izan zen. Honekin jende askorengana iritsi ginen. Bultzada handia eman zigun. Eta *Ezin ahaztu* Zuriñe sartu osteko lehen arrakasta izan zen. Garai gorabeheratsuak izan ondoren, abesti honekin egonkortasuna lortu genuen berri ere. Norbait izatera itzuli ginen hain zaila den mundu honetan. Hortaz, esan daiteke bi abesti hauek markatu dutela gure ibilbidea, eta horregatik hautatu genituen disko honetarako.

**Behar zaitut-en kasuan, Sorkun eta Pettiren kolaborazioa izan zenuten. Zergatik aukeratu zenituzten bi artista hauek?**

Sorkun beti izan da erreferentzia bat guretzako. Gu hasi ginenean, ez zen hain ohikoa neskak eszenatoki gainean ikusteak. Eta momentu hartan Sorkun zen Euskal Herriko ahotsa. Eduki ditugun neska abeslariendako erreferente oso garrantzitsua da. Haren baiezkoa izatea sekulakoa izan zen. Eta Pettiren kasuan, proiektuaren batean harekin lan egiteko aukera izan nuen, eta bere ahotsak guztiz liluratu utzi ninduen. Euskal Herriko mutil-ahotsik onenetakoa du. Eta hark ere gustura onartu zuen gure gonbidapena.

**Urteurrena Durangoko Azokan ospatu zenuten. Horretarako plaza ezin hobea da, ezta?**

Hala da. Pena bakarra, igandea izan zela, alegia, hurrengo eguna laneguna zela. Baina bestela, bai, plaza oso ona da disko bat aurkezteko: festa giroa izaten da, gonbidatu bereziak izan ditza-kezu...

**Oro har, nolako erantzuna ari da izaten disko berria?**

Gauza oso onak ari gara entzuten. Durangon bertan ikusi genuen harriera ona ari zela izaten. Jendeak dagoeneko bazekizkien abesti batzuk. Momentuz, oso pozik gaude. Ezin gara kexatu.

**Nolanahi, kritikak ere jaso dituzue. Batzuen ustez, komertziale-gia da. Nola jaso dituzue halako iruzkinak?**

Kritikak espero genituen. Aurkezpen-prentsaurrekoan esan nuen bezala, inork ez badu esaten popero zikin batzuk garela, zerbait ez doa ondo. Kritikak ongi etorriak dira, erakustokian zauden seinale baitira. Hor ez bazau-de, inork ez du zutaz hitz egiten. Jende kritikoa beti egon behar da. Normala da. Gauza asko izaten dira: inbidia, eta abar. Denetarik dago.

**Taldearen hastapenetan, kide guztiak sakandarrak zineten. Egun, ordea, soilik bi gelditzen zarete. Taldea oraindik sakandar gisa etiketatuko zenuke?**

Bai, orain eta beti. Sakanan jaio zen, eta hori ezin daiteke ahaztu. Gainera, ezin dezakegu beste inon etiketatu, gainontzeko taldekideak ez baitira eskualde berekoak.

**Bestelakoan, Hesian asko aldatu al da izaeraz? Edo betiko nortasuna dauka?**

Asko aldatu da. Hamar urtetan, jende pila pasa da hemendik, eta mila istorio gertatu dira. Gainera, sortu gurenean 20 urte genituen, eta orain 30 ditugu, nire kasuan behintzat. Esentziari eusten saiatu gara, baina aldaketa asko gertatu dira.

**Momentu edo garai batekin geratu beharko bazina, zein aukeratu zenuke?**

Momentu hau, orainaldia aukeratu nuke. Iragana pasa da, eta ez du merezi beti atzera begira aritzea. Orain ongi, pozik eta gustura gaude, eta momentu hau ez nuke aldatuko.

**Dena den, une txarrak ere ez ziren faltako.**

Noski. Gu talde oso gorabeheratsua izan gara. Taldekide aldaketa asko izan da, eta hori nabaritu dugu. Momentu oso gogorrak bizi izan ditugu. Baina bizitza bera da horrelakoa. Jendea badao, jendea badator, batzuekin ondo zaude, beste batzuekin ez... Hori da dagoena.

**Zein izan da Hesianen arrakastaren gakoa?**

Ez dakit gako bakarra dagoen. Hori bai, uste dut lanak ezaugarritzen gaituela. Lan pila egin izan dugu beti. Esfortzurik gabe, garbi daukat ezinezkoa dela arrakasta izatea.

**Hemendik 10 urtera oraindik ekinean ariko zarete uste duzu?**

Auskalo. Asmoa izan, badugu. Orain oso gustura gaude behintzat. Bikote batekin bezala gertatzen da: bikote batekin ongi baldin bazaude, etorkizunean berekin jarraitzea espero duzu. Orain ongi gaudenez, beste urte askoan jarraitu nahiko genuke.

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: % 60 Min: 4 Max: 9	euria: % 30 Min: 5 Max: 9	euria: % 15 Min: 4 Max: 9	euria: % 15 Min: 4 Max: 11	euria: % 30 Min: 6 Max: 12	euria: % 45 Min: 5 Max: 10	euria: % 30 Min: 7 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	11	-7	0
Etxarri A.	10.4	-8	0
Altsasu	11	-7	0.3
Aralar	3	-8	0.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
28	4	12	18

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia  
5 9000

Beirak lehorrean jarrita  
STV

Isolamendu nukleo indartsua  
IKD

Aparteko azala koloreztatua

**Bazkide zozketa**

**URTARRILEKO SARIAK:**

**1. SARIA:**  
Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

**2.,3. ETA 4. SARIA:**  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

IRURTZUN XOTA E.S.

CAMPING ARTAZA

lacturale

g

gaztezulo

**>> 11 galdera**

**Javier Ignacio Elizalde Salegi**  
Altsasuko Elizalde burdindegia

Alfredo Alvaro Igoa



**1. Noiz zabaldu zen burdindegia?**  
Lucas Elizalde Uribe aitona Argentinan, Buenos Airesen, egon zen. Amonarekin, Perfecta Beraza Arruerekin ezkontzera etorri zen. I. Mundu Gerra hasi zenean bueltatzea zaildu eta atzeratu eta Altsasun negozioa jartzea erabaki zuten; 1915ean mustu zen denda. Hasierako izena Boliche zen, Argentinatik zetorrelako. Ondoren aldatu egin zuen: Tienda Buenos Aires, Lucas Elizalde.

**2. Nolako denda zen hura?**  
Denda handia zen, nahikoa modernoa: jatekoak, drogeria, burdindegia, kinkila (metalezko etzeko tresneria), imitaziozko bitxiak, lurrinak, jostailuak, oparitarakoak eta gatzak, arto eta gari biltegiak zituen. Erakusleioan hainbat gauza zituen, guztiak 0,95 pezetatan salgai. Hori orduan gauza modernoa zen! Gauzekin trukatzeko baleak ere ematen zituen. Propagandadun paipai edo abanikoak zituen. Nahiko osatua zegoen saltoki bat zen.

**3. Zer zen gehien saltzen zena?**  
Orduan karburua asko saltzen zen, adibidez, mendian zeudenen krisi-leturako, pizteko... sardina-zaharrak, abajua, txerri-hilketarako tripa eta halakoak saltzen ziren. Kafea eta kakahueteak xigortzekoa ere bazuen. Ontziratu gabe edo soltean asko saltzen zen orduan: olio eta halakoak. Azukrea ere bai. Ferietan ere zabaltzen zuen eta asko saltzen zen.

**4. Nola hornitzen zen denda?**  
Salgaiak trenez ekartzen ziren. Oraindik bizi den Kaito delako batek salgaiak geltokitik astotxo batekin ekartzen zituen. Genero-saltzaileei geltokiko morroi batekin ekartzen zizkien maletak gur-

dian. Batez ere jostailuenak, erraldoiak ziren.

**5. Burdindegia noiztik dago egungo kokapenean?**

1963an itxizen trinketea eta 1964an denda banatu egin zen. Leoncio Elizalde aitak, guk, burdindegia eta kinkila-denda jarri genuen eta gainontzeko guztia, jatekoak, drogeria, oparitarakoak... beste denda gelditu zen. 1964ra arte amona izan zen saltzaile onena. Oso ezaguna zen. Aitonak zabaldu tako denda 1987an itxi zen, Zacarias Elizalde, Jaimito, osaba jubilatzean. Hark kudeatzen zuen. Itxi eta sei hilabetez optika jarri zen, joan den urtean itxi zuena. Aitak ere 1987an utzi zuen etanik, hirugarren belaunaldiak, hartu nuen, azaroaren 30ean itxi nuen arte.

**6. Zer nolako zen burdindegia?**

Denda normala da, genero askorekin. Genero ekartzean batzuetan asmatzen zenuen, besteetan ez. Baina gutxi gorabehera... Lehen urte haietan, 60 urtetik aurrera, egoerak hobera egin zuen eta dirua mugitzen hasi zen. Extremadurako jende horrekin guztiarekin eta besteekin gauza asko saltzen zen. N-1 errepidearekin mugimendu handia zegoen. Garatzen joan zen. Hainbat krisi izan arren dendak nahiko ongi defendatu ziren 92ra arte. Orduan handiagoak sartzen hasi ziren, burdindegia-kateak eta saltoki handiak, eta behera egin zuen negozioak.

**7. Zergatik itxiera?**

Adindu naiz. Egon zen bat eskualdatzeko edo alokatzeko, baina azkenean ezer. Zaila da. Azaroaren 30ean itxi nuen. Baratza eta ariketa pixka bat egin nahi nituzke. Ez dut aspertzeko asmorik.

**8. Trinketea aipatu duzu lehen, ezta?**

Txiki-polita trinketea zuen izena. 1930ean zabaldu zen. 5,5 metro inguru zabal eta 17,5 metro luze zituen. Bost koadro zituen. Goiko aldean palkoa du, partidak ikusteko. Gorago, ganbara. Trinkete deitzen genion, baina ez zen trinketea; ez zuen teilatutxorik, ez frailerik. Originaltasuna zen ate bat zegoela. Egungo burdindegian komuna eta iturria zuen konketa zeuden.

**9. Zergatik trinkete bat?**

Zabaldu zutenean Foru plazako frontoia besterik ez zegoen eta euria egiten zutenean ezin zen jokatu. Aitonak, ziurrenik, ideia Argentinatik ekarriko zuen.

**10. Erabiltzeko zer egin behar zen?**

Partidak 25 tantotara jokatzeko ziren eta partidako 0,7 pezeta pagatu behar ziren. Betiko maltzurkeriaz zegoen eta 25 tanto haiekin ziren sekula bukatzen. Azkenik, orduko kobratzen hasi ziren. Eskuz jokatzeaz aparte, txikia bazen ere gomazko pilotarekin palan eta pala motean jokatzeko. Trebetasun jokoaren, gehienbat. Bestela, errebotetik pilota asko eraman behar ziren, zeren eta aitonaren pilotak motelak baziren ere, indarra zuen berehala bidaltzen zituen errebotera.

**11. Zein jolasten zen?**

Sakana guztiko mutilak hemen elkartzeko ziren eta haien artean pike asko egoten zen. Haietako askok, ezpartinak ez hausteko oin hutsik jokatzen zuten. Bakarren batek maki bukatzen zuen. Trinketean indarra baino trebetasuna behar zen. Pilotari oso ezagunak jokatu dute hemen. Bestetik, urte akaberetan eta eguraldi txarra egiten zuen batzuetan dantzaldiak antolatzen zituzten, jaban batekin.

Osorik: www.guaixe.eus

Foru plaza, 23-1. Altsasu  
948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus  
www.gkomunikazioa.eus

**gk**  
KOMUNIKAZIOA

**Matrikulazio kampainarako beharrezko materiala**

- Eskuoniak
- Iragarkiak
- Kuñak
- Mailingak
- Kartelak
- Banerrak
- Pertsonalizatutako
- Diptikoak
- Triptikoak
- Axotak
- USB-ak
- Arkatzak